# anboto

TOKIKOM

2010eko urriaren 1a
9. urtea - 388 zk.

durangaldeko astekaria

www.anboto.org



**Herririk Herri** |4|
Txantxibiriko jaiak eta Errebonbillo Eguna ospatuko dituzte Elorrion



**Berbaz** |8|
Idurre Zabala: "Emakume askoren bizitza baldintzatzen du gernu jarioak"

**Amalurra** |18|
'Gutxiago kontsumitu eta hobeto bizi' hitzaldia Deshazkunde taldeagaz


# Ondarearen Europako Jardunaldiak urrian

> Durangaldeko sei herritako "ondare ezkutua" agerian ipiniko dute datozen asteetan

> 'Sartu zeure historian' lelopean, ekitaldi ugari antolatuko dituzte urrian zehar

2



Mañariko elizan egin zuten, astelehenean, Ondarearen Europako Jardunaldien aurkezpena.

## GR-Mikeldiren mantenua adosteko eskaera Aldundiari

**Durango•** 'GR-Mikeldi' ibilbidea "egoera kaskarrean" dagoelako mozioa aurkeztu du PSE-EEk. Aho batez onartu dute ibilbidearen mantenuaren agenda Aldundiagaz adosteko eskaera. "Durango eta Amorebieta-Etxanoko ibilbidea landaredia azpian geratzeko arriskua dago."

3

## Etxebizitza tasatuen baldintzak aldatu ditu udalak

**Abadiño•** Muntsaratzen eraikiko dituzten prezio tasatuko etxebizitzen inguruan Abadiñoko Udalak eta enpresa eraikitzaileak 2007an sinatutako hitzarmenean aldaketak egin dituzte. Ezker Abertzaleak gogor salatu ditu aldaketok.

4

## AEBetako telesailei buruzko bost tertulia

**KULTURA •** Bost saiotan, AEBetan ekoitzitako bost telesailen inguruko foruma egingo dute urriko hiru eta azaroko bi eguenetan Durangoko Udal Liburutegian. Harkaitz Cano idazle, gidoilari eta telesail-zale lasartearrak gidatuko ditu tertuliak, eta berak aurkeztu digu ekimena.

11

## II. Pablo Berasaluze Txapelketako finalak

**KIROLAK •** Iurreta eskupilotaren hirigune bihurtuko da asteburuan. Gaur San Migel Torneoko finalak jokatuko dituzte. Domeka goizean Pablo Berasaluze Txapelketaren irabazle nortzuk diren jakingo dugu eta arratsaldean profesional mailako partidua jokatuko dute.

15


• **Durangaldea**
Protestak Fumbarri (Durango) eta Garita (Berriz) enpresetan 2

• **Elorrio**
Gidabaimena euskaraz ateratzeko laguntzak emango ditu udalak 6

• **Iurreta**
Ortu ludikoak banatuko dituzte 4





# HERRIRIK HERRI

DURANGALDEA

## Sei herritako "ondare ezkutua" denon bistara

Gertuko baina sarritan ezezagun zaizkigun altxorrak ezagutzeko proposamenak sei herritan

Durangaldeko sei herritan burutuko dira aurten Gerediaga eta Urkiola Landa Garapenerako elkarteek antolatuta eta Bizkaiko Aldundiak babesturiko Ondarearen Europako Jardunaldiak. Jardunaldietako protagonistetako bat den Mañariko Amabirjinaren Jasokundeko elizako organuaren babesean egin dute herri guztietako ordezkariek aurkezpena. Bizkaiko handiena da Mañariko organu barrokoa, eta kontzertua eskainiko du Andres Cea Galán musikariak, urriaren 23an, 19:00etan, bertan.

Aurkezpenean azalpenak ematen jardun duen Mañariko udaleko Igone Ikobaltzeta zinegotziak jakinarazi duenez, mendiko bisita gidatu bat ere izango da Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, Mañarian: urriaren 10ean eta 16an, 11:00etarako antolatu dute, besteak beste, Azkondoko kobazuloa, Deabru Harria, eta kobazuloen ondoan eraikitako San Lorenzo eta San Martin ermitetara gerturatuko gaituen hiru orduko mendi bisita gidatua. Bidean, leku horiei lotutako mito eta legendak entzun ahalko dituzte parte-hartzaileek.

**Mañariko elizako organu barrokoa da jardunaldietako protagonistetako bat**

Durangon, Iurretan, Otxandion, Elorrion eta Garain antolatu dituzte ondarearen inguruko gainerako jardunaldiak. Herri horietako "alde ezezagunak" bistaratzea da, Urkiola Landa Garapena elkarteko Aitor Loiolak dioenez, jomuga. Jardunaldietako ekitaldi guztiei buruzko informazio zehatza: *www.bizkaia.net/ondarea* helbidean dago ikusgai. ■ I.E.



Mañariko elizan egin dute jardunaldien aurkezpena. I.E.

**URRIAN ZEHAR**

**Durango**
**'Kurutziaga, gurutze berezi baten sekretuak'** bisita gidatua, urriaren 3, 9, 16, 23an.
**'Hilen hiria: Durangoko hilerria'** bisita gidatua urriaren 2an eta 23an.

**Elorrio**
**'Kurutziagako gurutzea'** erakusketa urriaren 4tik azaroaren 6ra arte.

**Garai**
**'Errituak defuntuen alde'** bisita gidatua eta erakusketa urriaren 9 eta 30ean.

**Iurreta**
**'Errituak baserrietan '** berbaldia urriaren 24an, 12:00etan.
**'Ibilbidea Arandian zehar'** bisita gidatua urriaren 2an eta 9an.

**Mañaria**
**'Mitoak eta legendak bidean'** bisita gidatua, urriaren 10ean eta 16an.
**'Barrokoaren soinuak'** organu kontzertua urriaren 23an.

**Otxandio**
**'Domekan, meza nagusiaren ondoren'** bisita gidatua, urriaren 17an, 18:00etan.
**'Biolinak San Martinen'** kontzertua, urriaren 16an, 18:00etan.

## EAEn grebaren eragina txikia izan dela onartu dute UGTk eta CCOOk

Bizkaian, industriari dagokionez, Ezkerraldeko poligonoetan izan du jarraipenik handiena




Euskotrenek gutxieneko zerbitzuak bermatu zituen.

Joan zen eguazteneko grebaren eskualdeko datu zehatzik ez dute jakinarazi UGT eta CCOO sindikatu deitzaileek. Tren zerbitzuetan, esaterako, gutxieneko zerbitzuak bermatu zituzten. Dena dela, CCOOk egindako balorazioan onartu du "Euskadin grebaren eragina txikia" izan zela, "denok ezagutzen ditugun arrazoiengatik".

Sindikatu deitzaileen arabera, Bilbon antolatutako manifestazioan "8.000 lagunetik gora batu ziren". Gasteizen "2.500 lagunek" bat egin zuten manifestazioagaz, eta Donostian "2.000 lagunek". CCOOk emandako datuen arabera, Bizkaian, industriari dagokionez, Ezkerraldean grebak izandako atxikimendua "handia" izan da, "El Campillo lako poligonoetan". Irakaskuntza publikoan, Bizkaiari dagokionez, "Leioan %70eko jarraipena" izan duela adierazi dute sindikatuek. UGT sindikatuko idazkari nagusi Damaso Casadoren berbetan, Euskal Autonomia Erkidegoan "70.000 lagunek eta UGTko 3.600 sekzio sindikalek sinatu dute grebarekiko atxikimendua". ■ J.D.

**Industriari dagokionez, "Ezkerraldeko poligonoetan izan du jarraipen handiena" sindikatuen arabera**

## Protestak Durangoko Fumbarri eta Berrizko Garita enpresetan

Fumbarrin asanblada bat egitea gura dute 80 langileekin; horietako 20 bazkideak dira

Fumbarrin lehenengo enplegu-erregulazioan zuzendaritzak "kaleratze traumatikorik egon ez dadin akordioetara heltzeko konpromisoa hartu zuen", Jon Ugarte enpresako komiteko LABeko ordezkariaren esanetan (LABek lau eta CCOOk ordezkari bat dituzte). Bigarren enplegu-erregulazioan ez ziren akordiora heldu, zuzendaritzak testuaren "irakurketa aldatu" zuelako: 'Konpromisoa' berba beharrean "akordioetara heltzea aztertzea" proposatu zuten, eta, horrek kaleratzeen atea irekitzen zuenez, ez ziren akordiora heldu.

Harrezkero langile bi kaleratu dituzte. Komiteak "langileen enplegua bermatu" gura du, "hori da behinena, gainerako puntuetan akordioetara heltzeko ez dago arazorik". Aurreratu dutenez, langile guztiekin asanblada deituko dute. 80 langileetatik 20 bazkideak dira.

**"Langileen enplegua bermatu gura dugu; gainerakoan, akordioa posible da"**

### "Eskubideen urraketa"

Garita enpresan LABek ordezkari bi dauzka eta ELAk bat. LABeko ordezkarien esanetan, "azken aldian lan hitzarmena negoziatzeko proposamena aurkeztu eta ez dutela negoziatuko adierazi dute". Bestetik, "langileek aurretik eskuratutako eskubideen urraketa" eman da hainbat kasutan. Azkenik, 40 urtean enpresan lanean dabiltzanei ez diete errelebo kontraturik egin gura.

Ondorioz, datozen 15 egunetan asteburuetan aparteko ordurik ez egiteko deia egin dute. Ondoren, egoera hobetu ezik, beste asanblada bat egingo dute mobilizazioak zehazteko. ■ J.D.

DURANGO

# GR-Mikeldiren mantenua adosteko eskaera Aldundiari

## Ibilbidea "egoera kaskarrean" dagoelako mozioa aurkeztu zuen PSE-EEk; aho batez onartu zuten

Martitzeneko udalbatzarrean PSE-EEk 'GR-Mikeldi' izenez ezagutzen den mendi ibilbide luzearen urteroko mantenurako agenda Aldundiagaz adostea eskatzen duen mozioa aurkeztu zuen. Alderdi guztiek alde bozkatu eta aho batez onartu zen.

Pilar Rios zinegotzi sozialistaren esanetan, "Durangaldea eta Amorebieta-Etxano inguratzen dituen' GR-Mikeldi' ibilbidea landarediaren azpian geratzeko arriskuan dago". Horregatik, Aldundiari ibilbide horren mantenua zehaztuko duen urteroko agenda elkarregaz adosteko eskatzen du mozioak. Agenda hori ibilbideak zeharkatzen dituen udaletxeekin, Alpino-Tabira mendizale taldeagaz eta Euskadiko Mendi Federazioagaz elkarlanean adostuko litzateke.

"Arazoa konpontzeko lanean gabiltza", dio EAJk. "Ekainean Urkiola Landa Garapenetik garbiketarako aurrekontu bat helearazi ziguten, eta ez genuen onartu herri bakoitzak ordaindu beharrekoa biztanle kopuruaren arabera zehaztu zutelako, eta irizpide horregaz ez gaude ados".

**Aldundiaren erantzukizuna**

Aralarren ustez, ibilbidearen egoera kaskarra, batez ere, "Aldundiaren nekazal arloak ardura hori hartu ez" izanaren ondorio da. Agenda adosteko mahaira Durangaldeko mendizale talde guztiak sartzeko eta zonalde kaltetuen zerrendara AHTaren lanek eragindako Durango-Izurtza tartea ere gehitzeko eskatu zuten.

Talde Mistoa ados agertu zen Aralarregaz azken puntu bietan, eta mendizale taldeetan sortu berri den Iurretako Zaldai kontuan hartzeko eskatu zuen. Urtean urteko mantenua herriekin batera eta adostasunean prestatu dadin ere eskatu zuen.

Azkenik, PP alderdiak ere ibilbidea berpiztearen garrantzia azpimarratu zuen. Izan ere , popularren esanetan, "Durangaldetik bertatik ez eze kanpotik ere jende asko etortzen da". ■ J.D.



GR-Mikeldik Durangaldeko hainbat herri zeharkatzen ditu.

OTXANDIO

# Jake Mate taldearen kontzertua bihar Mekoletan

Zapatuan, 23:00etatik aurrera, Arkotxe kultur elkarteak Jake Mate taldearen kontzertua antolatu du, Mekoletako elkartean. Jake Mate Donostiako musika eskola bateko irakasle eta ikasleek osatutako taldea da. Hainbat lagun etorriko dira Mekoletara eta taldetxoak osatuz txandaka igoko dira oholtzara. Soul eta rock abesti ezagunen bertsioak joko dituzte.

**Donostiako musika eskola bateko irakasle eta ikasleek osatzen dute taldea**

Ekaineko jaietan eguraldi txarra egin ohi duela-eta, Arkotxek aspaldittik zuen horrelako kontzerturen bat antolatzeko asmoa. Udan antolatzea gura zuten, baina hainbat arrazoigatik urrira atzeratu dute ekimena. Zapatuko kontzertuak oholtza berria estreinatzeko ere balioko die Arkotxekoei. ■ J.D.

# Atxilotuei elkartasuna adierazteko mozioa, atzera

## Talde Mistoa eta Aralarren botoak ez ziren nahikoa izan; PPk, PSE-EEk eta EAJk atzera bota zuten

Talde Mistoak aurkeztutako mozioak oraintsu zein asteon bertan atxilotutako Ezker Abertzaleko kide denei elkartasuna adierazten zien eta euren askatasunaren eta eskubideen alde egingo diren mobilizazioetan parte hartzera gonbidatzen zuen. Aralarren aldeko botoak eta EAJ, PSE-EE eta PPren kontrakoak jasota, ez zen aurrera irten. Mozioak "aldaketa politikoa inoiz baino beharrezkoagoa dela" nabarmentzen du, eta espainiar estatuaren jarrera "onartezina" dela dio, "konponbide demokratikoa emateko konpromisoa kriminalizatzen" duelako. Aralarrek, gaur egungo egoera politika zein den kontuan hartuta atxiloketak zergatik egin diren orain galdetu zuen: "Ez da kasualitatea, eta akats nabarmena da".

**Talde Mistoaren ustez, "konponbide demokratikoa kriminalizatu" gura dute**

EAJk adierazpen askatasunaren alde daudela esan zuen, baina mozioan ETAri ekintza armatuekin amaitzeko eskatzen ez zaionez, kontra bozkatu zuten. PSE-EEk eztabaidan ez zirela sartuko adierazi zuen, "ETAk armak uzten dituela esan arte". PPk ez zuen mozioa baloratu. ■ J.D.

# Olgetan ludoteka martxan Plateruena kafe antzokian

## Astelehen, martitzen eta eguazten arratsaldetan antolatuko du Berbaro euskara elkarteak

Astelehen honetan hasi eta datorren urteko ekainera arte, Olgetan izeneko ludoteka antolatuko du Berbaro euskara elkarteak Plateruenean. Astelehen, martitzen eta eguztenetan egongo da zabalik, 17:00etatik 19:00etara.

Kalitatea hobetu asmoz aurten berrikuntzaz beterik dator ludoteka. Eszenatokitik anfiteatrora pasatu eta gehienezko kopurua 24 haurrentzako —hiru eta zortzi urte bitartekoak— mugatu dute. Urtean zehar mota guztietako tailerrak eta jolasak egingo dituzte. Gainera, hileko domeka bitan ere ikuskizunak antolatzen dituzte. Ludotekako gehinezko kopurua kontrolatzeko atean orri bat ipiniko dute eta heldu ahala gurasoek euren izena idatziko dute. ■ J.D.

**Aurten anfiteatroan egingo dute ludoteka, eta kopurua 24 umekoa izango da**



Hainbat urte joan da Olgetan lehenengoz antolatu zutenetik.





R.P.S. 214/05
• Oinetako patologiak
• Neurrira egindako plantillak
• Oinetako beste hainbat gaitz
Ainara Urreta Jainaga
PODOLOGOA 180. Elkargokidea
IMQ AEGON SERSANET SANITAS
Herriko gudarien kalea, 10 - behea • 48200 DURANGO • Tel./Faxa: 94 621 54 04

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyelexpe.biz

ABADIÑO

# Aldaketak prezio tasatuko etxebizitzen hitzarmenean

## Gogor salatu ditu Ezker Abertzaleak aldaketok

Uztaileko datagaz alkateak sinatzen duen dekretua aurkeztu du gobernuak osoko bilkuran. Muntsarazko etxebizitzak eraikiko zituen enpresa sustatzaileak eta udalak 2007an sinatutako hitzarmenean zenbait aldaketa egin dituzte: "Hasierako hitzarmena sinatu zeneko egoera ekonomikoa bestelakoa zen, eta egungora moldatu beharra ikusi dugu", azaldu du Jose Luis Navarro alkateak. Udalak sinatuta zeukan hitzarmenean egin diren aldaketak, "Mutsarazko prezio tasatuko etxebizitzei dagozkien hiru kontzeptutan" egin dituzte.

Orain hiru urte sinatutako hitzarmenean etxebizitza tasatuen jabe herritar abadiñarrak bakarrik izan bazitezkeen, baldintza berrien arabera, "azken hamar urteetan urtebetez Abadiñon erroldatuta" egon izan direnek ere eman ahalko dute zerrendan izena. Bestetik, "batez besteko prezio muga 240.000 euroan" egon arren, metro karratuaren araberako prezioa ezarri dute (2.800 euro metro karratuko).

Amaitzeko, prezio tasatuko etxebizitza bat eskuratzeko baldintzetako bat izena emateko unean beste etxebizitzarik ez edukitzea zehazten zuen aurreko hitzarmenak. Orain, beste etxebizitza bat daukanak, prezio tasatuko etxebizitzetako bat eskuratzeko zerrendan izena eman ahalko du. Prezio tasatuko etxebizitzaren eskriturak egiterakoan besterik ez edukitzea da orain, baldintza.

Gogor kritikatu du Ezker Abertzaleko Basauri zinegotziak, "gazteen beharrizanei erantzungo zien etxebizitza promozio moduan aurkeztu zutena" hitzarmen berri honegaz beste erosle profil bati zabaldu izana: "Hainbeste aipatu dituzten gazteek ezin dituzte prezio horiek ordaindu, eta etxe barik jarraitzen dute...". Hitzarmena, "diru publikoagaz eta enpresa eraikitzailearen neurrira" prestatu dutela eta udalbatzarrean bozketara aurkeztu barik dekretuz ezartzea salatu du Ezker Abertzaleak.

**Babesekoen zotz egitea**

Urriarren 7an egingo dute Muntsarazko babes ofizialeko etxebizitzen bigarren zozketa, 12:00etan: 69 etxe esleituko dituzte. ■ I.E.



Orain urte biko ekainean aurkeztu zuten proiektua. I.E.

MAÑARIA

# Ingelesa ikasteko helduen taldea osatu dute hirugarren urtez

Udalaren laguntzagaz, orain urte bi osatu zuten ingelesa ikasi gura zuten helduen lehenengo taldea Mañarian. Umeen taldeagaz legez, herrian ingelesa ikasi gura zutenen eskaria bazegoela ohartuta, zerbitzua herrian bertan jaso ahal izatea ahalbidetu gura izan zuen udalak, mañariarrek ingelesa ikasi ahal izateko herritik kanpora joan beharra izan ez zezaten: Durangoko akademia batekoa da irakaslea, eta Udaletxeko lokalean ematen ditu eskolak astean bi bider.

Hile honetan hasita, martitzen eta eguen iluntzetan batuko dira ikastaroan izena eman duten zortzi helduak, eta astelehen eta eguaztenetan batzen dira txikien taldeko dozena bat umeak. ■ I.E.

IZURTZA

# Esleituta dauden obra bi hasiko dituzte datozen egunetan

Urriko lehenengo egunetan ekingo diete auzoetako argiteria aldatzeari: argiteria publikoan ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko bonbilla berriak ipiniko dituzte. Gastuaren %70 ordaintzeko diru-laguntza jaso du udalak Aldunditik. Bestalde, kirol azpiegiturak berritzeko Aldundiak ematen duen diru-laguntzagaz, frontoia margotu eta aldagelak berriztuko dituzte datozen egunetan.

**Batzarra urriaren 2an**

Herriko ordenamendua berrikusteko martxan ipinitako prozesuaren joan zen egueneko aurkezpenaren ondoren, lehenengo herri batzarra egingo dute, bihar, 10:00etan, udaletxean. ■ I.E.

ZALDIBAR

# Gaztelekua zabalik, gaurtik aurrera, asteburuetan

Zaldibarko Gaztelekua martxan da berriro ere, gaurtik aurrera. 12 eta 16 urte bitarteko gazteek aisialdirako aukera berri bat izango dute, beraz, asteburuetan. Barikuetan 17:00etatik 20:30era egongo da zabalik, eta zapatu zein domeketan 16:30etik 20:30era. Udalak bertan parte hartzera gonbidatu ditu herriko gaztetxoak.

Ikastaroak, irteerak, jai bereziak, eskulanak, lehiaketak eta berbaldiak burutuko dituzte, besteak beste, Gaztelekuan. "Euskal giroan, lagunekin olgetan eginez ikasteko eta ondo pasatzeko lekua" dela adierazi du udalak. Bertan parte hartzeko baldintza bakarra, azaldu dutenez, euskaraz jardutea da.

**Postal lehiaketa**

Bestalde, Zaldibarko liburutegiak martxan ipinitako hirugarren postal lehiaketak badu irabazlea: Julen Orbegozo durangarra. Mallorcatik bidali zuen bere postala Orbegozok. Bigarren saria Ainhoa Cerrosek eskuratu du, Panamatik bidalitako postalari eskerrak. Azkenik, Endika Blanco durangarrak Eskoziatik igorritako postalak epaimahaiaren aipamen berezia jaso du.

Liburutegiak ekintzekin aurrera segitzen du, eta gaurtik hilaren 15era bitartean, perretxikoen gaineko *Denok perretxikoak hartzera!* izeneko erakusketa izango da ikusgai. ■ M.O.

**Gaztelekuan parte hartu ahal izateko baldintza bakarra euskaraz jardutea da**

IURRETA

# Ortuak eskuratzeko urrian eman beharko da izena

## Ordenantza behin betiko onartuta, baratzak banatzeko baldintzak urria hasieran azalduko dituzte

Iturburun aisialdirako atondu dituzten ortuak prest daude ia. Tresna batzuk erostea eta ortuak koordinatuko dituen monitorea kontratatzea falta da, eta laster ortuak eskuratzeko baldintzak zeintzuk izango diren jakinaraziko du udalak. Asteon onartu dute behin betirako baratzen erabilera arautuko duen ordenantza, eta Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez, ortuak banatzeko baldintzak urria hasieran kaleratuko dituzte.

Guztira, berrogei partzela atondu ditu udalak Iturburu auzoan. Ordenantzaren arabera, aisialdirako baratzak izango dira horiek, eta ezingo da zuzeneko salmentaren bidez baratzeko produkturik saldu. Ortuetan egingo dena nekazaritza ekologikoa izan beharko da, eta partzeletara ezingo da animaliarik sartu.

**Erreminta batzuk erosi eta monitorea kontratatuko dute datozen egunetan**

Partzelez gainera, ortu guztiena izango den lur-eremua egongo da Iturburun. Erremintak eta makinak bertan egongo dira,

**Nekazaritza ekologikoa egitea da erabiltzaileek izango duten baldintzetako bat**

baratzeetan behar egingo dutenen eskura. Monitore bat egongo da ortuen jarduna koordinatzeko, eta hari eskatu beharko zaizkio motor bidezko makinak.

Atzo egindako osoko bilkuran onartu zuten behin betiko ortuen ordenantza. PSE-EEko zinegotziek kontra bozkatu zuten "gastua larregikoa eta ordenantza orokorregia" dela iritzita. Alderdi popularra abstenitu egin zen, eta beste zinegotzi guztiek alde bozkatu zuten. ■ A.U.

Durangaldeko Behargintza
Eskualdeko Garapen Agentzia
Agencia Comarcal de Desarrollo
BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila

EKINTZAILEENTZAKO OINARRIZKO TREBAKUNTZA

Enpresa berri bat sortzeko asmoa dutenei zuzendua

**HELBURUA:** Durangaldean enpresa berriak sortu

**EDUKIAK:** Negoziazioa, forma juridikoa, eratzeko legezko izapideak, baimenak, lizentziak, finantzaketa eta laguntzak, arriskuak eta ingurumenekoak, zerga-ordainketa

**IRAUPENA:** 2010eko urriaren 18tik 28ra (30 ordu)

**ORDUTEGIA:** Astelehenetik ostegunera 16:00etatik 19:45era

**TOKIA:** Durangaldeko Behargintza

**IZENA EMATEKO EPEA:** 2010eko urriaren 15a arte

*"Bizkaiko Foru Aldundiko autoenplegua eta enpresen sorrera sustatzeko diru-laguntza berria eskatzeko balio du"*



Durangaldeko Behargintza Laubideta, 6 Durango tf: 94 623 25 22
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara
www.amankomunazgoa.com





# izan berbalagun!

## praktikatu gurekin!

**zer da berbalagun?**

Astean behin lagunekin elkartu eta gustuko ekintzak eginez, euskeraz berba egitea, horixe da **berbalagun**ek daukan helburua.

Lagun taldeak astean behin elkartzen dira, zaletasun, adin eta denbora librearen arabera eta talde bakoitzak erabakitzen du zer egin, noiz eta non.

**norentzat da?**

**Bere euskera hobetu gura duenarentzat**. Edozeinek parte hartu ahal du, euskara ikasle izan edo ez, hitz egiteko gogoa baino ez da behar. Eta den-dena DOAN!

**Euskaldunontzat ere bada**, trebatu gura duenarekin astean behin batuz laguntza ederra ematen delako.

**Horretaz gain, hainbat ekintza ere antolatzen ditugu, zer egiten dugun ikusteko bisitatu gure bloga:**
**www.durangaldea.blogspot.com**

**informazioa**

**berbalagun**en apuntatu edo informaziorik nahi baduzu:

**639 400 786**

durangaldea@aek.org

**DURANGO:** AEKko euskaltegian, Udal euskaltegian, Hizkuntza Eskolan, Berbaron eta Euskara Sailan

**BERRIZ.** AEKn eta Euskara Zerbitzuan

**ZALDIBAR:** AEKn eta Euskara Zerbitzuan

**ELORRIO:** AEKko euskaltegian eta Euskara Zerbitzuan

**ABADIÑO:** Matienako Errota eta Zelaietako Txanporta kultur etxeetan eta Euskara Zerbitzuan

**"Mañaria, Izurtza, Atxondo eta Iurretan udal bulegoetan"**

Partaideek **EHUko kredituak** eskuratu ahal dituzte, **bidaia** eta **egonaldietarako deskontuak**, **aizu!** eta **berria** merkeago...
Info:www.praktikatu.blogspot.com

Antolatzaileak eta Udalak:

Babesleak:

**ELORRIO**

## Txantxibiri kaleko jaiak ospatuko dituzte zapatu honetan

Zapatu honetan Txantxibiri deitzen zaion kaleko jaiak ospatuko dituzte. Egun osorako ekitaldiak prestatu dituzte antolatzaileek.

Goizean zehar, txistularien musikak lagunduta, poteoa egingo dute kalean zehar. 14:00etan galaz edo baserritarrez jantzeko proposatu dute, kalearen inaugurazioa egiteko. Trikitixa eta aurreskuak girotuko dute eguerdia. 15:00etan etxetik lapikoa ekarri eta kale-bazkaria egingo dute; ardoa eta mahaiak egokituko dituzte, eta bertsolariek saioa eskainiko dute. Bazkalostean umeentzako jolasak egingo dituzte.

Arratsaldeko 19:30etik aurrera, Nicolas Gardokik erromeria eskainiko du bertaratzen direnei dantzarako gonbita eginez. 20:00etan, iazko lehenengo aldian arrakasta izan zuen tortilla lehiaketa egingo dute; 20:30 inguruan tortillak dastatuko dituzte. Iazko aldian 14 bat tortilla aurkeztu zituzten lehiaketara. Jaiei amaiera emateko, 21:30ean, zezen suzkoa egongo da. ■ J.D.

# Goizaldetik gauera arteko jai giroa Errebonbillo Egunean

### Goizeko kalejira amaitu ondoren, 13:30ean, txistu kontzertua eskainiko dute Herriko Plazan

Domekan Errebonbillo Eguna ospatuko dute Elorrion. Ohiturari eutsiz, goizaldean kalejirak girotuko du eta arratsaldea txistu kontzertuak, alardeak eta arkume-janak.

Goizeko bostetan kalejiran irtengo dute: Udaletxetik abiatu, Erreka, Txanberi eta Elgetarako bideko aldatsaren ondoan dagoen gurutze paretik pasatu, eta alkatearen etxean gosalduko dute. Txapliguak bota eta ederto jan ondoren, plazara bueltatuko dira.

13:30ean Durangaldeko txistulariek kontzertua eskainiko dute Herriko Plazan. Guztira, sei pieza joko dituzte: *Errebonbillo*, *Amaia*, *Erromerian*, *Euskal musikaren gorespena*, *Hiru itsas doinu*, *En el monte Gorbea* eta *Txantxibiri*. Eleder Iturrieta izango da kontzertuko zuzendaria eta Durangaldeko txistulariez gainera, Eneritz Elegezua, Irene Lasa, Fernando Alsasua eta Ismene Uriarte abeslariek eta Carlos Sánchez tronpetariak, Josu Otsotorena tronboi-jotzaileak eta Koldo Izagirre bonbardinoak ere parte hartuko dute.

Ondoren, urtero legez, 17:00etan errebonbilloek alardea egingo dute (14 errebonbillo, hiru txistulari eta kapitaina batuko dira), eta segidan dantza erakustaldia eskainiko dute.

Errebonbillo Egunari amaiera emateko, 18:30ean, arkume jana egingo dute. Iaz 1.000 pintxotik gora banatu zituzten. ■ J.D.

**Alardearen ondoren, arkume pintxoak jateko aukera eskainiko dute plazan**



Bizkaian Elorriokoa lako alarde bakarra ei dago. K.Aginako

# Gidabaimena euskaraz ateratzeko diru-laguntzak

### Azterketa teorikoa euskaraz eginez gero, lehenengo klase praktikoa ordainduko du udalak




Solozabal autoeskolan ordainduko dute klase praktikoa.

Bizkaiko Foru Aldundiko Alkarbide bilguneak sustatu eta Elorrioko Euskara Zerbitzuak bere egin duen egitasmoaren bitartez, elorriarrek diru-laguntzak jaso ahalko dituzte, gidabaimena ateratzeko azterketa teorikoa euskaraz eginez gero. Euskararen erabilera bultzatzeko helburuz garatuko dute ekimena. Diru-laguntzak dagoeneko indarrean daude, eta abenduaren 10era artekoa da deialdia. Datorren urtean ere ekimena errepikatzeko asmoa dutela jakinarazi dute Euskara Zerbitzutik.

**Baldintza bi bete behar dira: 17 urtetik 23ra edukitzea eta Elorrion erroldatuta egotea**

Elorrioko Solozabal autoeskolaren bitartez azterketa teorikoa euskaraz egiten duenak, azterketa gainditua gero autoeskola horretako lehenengo klase praktikoa ordainduko dio udalak. Solozabal eskolak azterketara joan denaren datuak emango dizkio udalari eta ikasleak azterketa gainditu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko du. Diru-laguntza hori 17 urtetik 23 urtera bitarteko Elorrion erroldatutako gazteei zuzenduta dago.

Azterketa euskaraz egiteko asmoa duenak matrikula egin eta liburua dohainik jasoko du. Euskara Batzordean —sasoi bateko liburutegian— ere eskuragarri daude, dohainik, liburuak. ■ J.D.

**Euskarazko liburuak dohainik jaso daitezke Euskara Zerbitzuaren egoitzan**

IURRETA INSTITUTUA
Goi-mailako Lanbide-Heziketako Berariazko Institutua
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Langileentzako ikastaroa
APLIKAZIO INFORMATIKO OROKORRAK ........ 80ordu
HASIERA: Urriaren 4an
Apuntatzeko: 94 466 88 00

**ATXONDO**

## Udazkenerako ikastaro bi Atxondoko Lamiaken eskutik

### Urritik abendura barreterapia ikastaroan eta jabekuntzaren ingurukoan parte hartu ahalko da

Gura duenak liburutegian edukiko du barreterapian eta jabekuntza ikastaroan izena emateko aukera. Udazken honetarako, ikastaro bi horiek antolatu ditu Atxondoko Lamiak elkarteak, Bagabiltza elkartearen laguntzagaz.

Eguaztenetan emango dute barreterapia ikastaroa urriaren 6tik aurrera. 16:00etik 18:00etara izango da Gaztetxe alboko lokalean. Jabekuntzaren inguruko tailerra, berriz, eguenetan izango da, urriaren 7tik aurrera, udalbatzar aretoan, 16:30etik 18:30era. Elkartekoek azaldu dutenez, izena emateko azken egun ofiziala atzo koa zen, baina taldeak osotu arte egongo da apuntatzeko aukera.

Ikasturtea hasita, Atxondoko Lamiak elkarteak batzarrak ere hasi ditu. Martitzenetan batzartzen dira, 17:00etan Eliz Etxean. Datorren hilean, gainera, zine foruma ipiniko dute berriro martxan, orain arteko moduan, hileko hirugarren barikuetan.

Atxondoko Lamiak elkarteko kideek azaldu dute pozik daudela herritarren parte-hartzeagaz: "Ekintzetara jende ugari gerturatzen da, eta Abadiñotik eta Elorriotik ere etortzen dira". ■ A.U.

**Batzarrak hasi dituzte berriro; martitzenero, 17:00etan, Eliz Etxean**

**GARAI**

## Informatika ikastaroan parte hartzera deitu dituzte garaitarrak

Urkiola landa garapenerako elkarteak antolatuta, asteon informatika ikastaroa egin dute hainbat garaitarrek KZgunean. Aurrerantzean ere horretarako aukera izango dela azaldu dute arduradunek, eta, horretarako, interesa duten herritarrak informatzera gonbidatu dituzte. Gainera, ordutegia eta egunak parte-hartzaileen artean adostea planteatzen dute, bakoitzak dituen aukerak proposatuz. Garaitarrek ez eze, Geredia gako auzokideek ere eman dezakete izena ikastaroan.

Herri txiki eta landa eremuetan teknologia berrien erabilera bultzatzea da honelako ikastaroen helburua, antolatzaileek azaldu digutenez. ■ M.O.

## Durangaldean labur

### Inurri eskaut taldeak aurtengo ikasturte berriari ekingo dio

Kurtso honetarako, 2001 eta 2002an Durangaldean jaiotako haurrentzako deialdia egin du Inurrik. Eskaut taldean parte hartzeko interesa daukaten familientzako hitzordua urriaren 12an ipini dute; 11:00etatik 13:00etara, Ezkurdin. Bestalde, guraso guztiek Inurri zer den ikusteko aukera izango dute. Horretarako, urriaren 21ean Inurriko lokalera deitu dituzte gurasoak (Garai jauregian), 19:00etan.

### Ezkurdiko frontoi zaharra zeneko horman koadro bi margotu dituzte

Ezkurdiko frontoi zaharreko sei bat metro geratzen dira zutik gaur egun. Zati horretan frontoiko 17. eta 18. koadroak zeuden, eta udalak bi koadro horiek margotu ditu oraintsu. 18. koadroko marra ezkerrerantz marraztuta dago, alboko eraikinarekin muga-mugan kokatuta dagoelako. Horma horretan, orain bost urte, frontoi zaharra gogoratzeko plaka bat ipini zuten.

Frontoi zaharrak 72 metro zituen luzeran; 1785ean hasi ziren eraikitzen. 1954an frontoia itxi eta 1955ean berria zabaldu zuten.




### Zengotitabengoa estraditatuko dute

Auzitegi Nazionalaren euroagindua onartu ondoren, Belgikako Kasazio Tribunalak Luis Zengotitabengoa preso elorriarra estraditatuko du. Zengotitabengoaren estradizioa, gehienez, 20 egunen barruan burutuko dute.

**MALLABIA**

# Donagarai-Egia-Asuntza basopista amaitzear dago

Aldundiak %75ean lagundu du. Jabeek eta udalak elkartea sortu dute basopista kudeatzeko

Trabakutik Urko mendi ingurura doan basopista irailaren amaierarako gertu izango dela azaldu du Mallabiko Udalak. Bertako lurjabeek eta udalak azken lau urteotan hainbat batzar eginda 2009an lortu zuten Bizkaiko Basogintza Elkarteak Donagarai-Egia-Asuntza basopistaren proiektua burutzea.

Aitor Loiola alkatearen berbetan, "hainbat arazorengatik hasierako proiektuan aldaketa batzuk egin behar izan zituzten, eta 2009ko irailean proiektu definitiboa aurkeztu zen".

Basopistak bost kilometro eta erdiko luzera du. Motordun ibilgailurik ezingo da pasatu; lurjabeenak eta basogintzan dabiltzanek bakarrik pasatu ahal izango dute bertatik.

Bizkaiko Foru Aldundiak proiektua %75ean lagundu du. Bertako lurjabeek elkartea sortu dute udalaren laguntzagaz basopista gestionatzeko. Obren aurrekontua 200.000 eurokoa bazen ere, Ekin enpresak merkeago egin du.

**Obren aurrekontua 200.000 eurokoa bazen ere, Ekin enpresak lanak merkeago egin ditu**

Arrazoi ugarigatik bultzatu dutela proiektua azaldu du. "Beharrezkoa zen inguruetako egur masaren eta ingurumenaren mantenu, iraupen eta gestiorako. Bertako biodibertsitatea jasaten ari zen higadura zaintzeko eta hidrologia orekarako zein bertako egur sektorea reaktibatzeko. Inguru honetan sute bat gertatuz gero, lurrez heltzeko bidea eraiki gura izan dugu. Nekazal sektorea indartzeko ere balioko du. Gainera, herritarren aisialdirako ere onuragarri izango da", adierazi du Aitor Loiolak. ■ J.G.

**"Arrazoi ugarigatik bultzatu du Udalak basopistaren proiektua", Aitor Loiola alkateak azaldu duenez**



Trabakutik Urko mendi ingururaino doa basopista.

**BERRIZ**

# Lazarraga saria Launari, euskara bultzatzearren

Arabako Aldundiak Launa upategia saritu du enpresa eta merkataritzan euskara sustatzearren



Unax Unzaluk jaso zuen Launari emandako saria.

Enpresen euskararen normalkuntzarako bidean Launa upategiak egindako ahalegina saritu du Arabako Aldundiak, Lazarraga sariagaz. Arabako Euskara Diputatu Lorena López de Lacallek eta ziurtagiriaren elkarteko zuzendari Rober Gutierrezek eman zioten saria, joan zen eguneko ekitaldian, upategiko Unax Unzaluri. Xabier Agirre ahaldun nagusia ere bertan izan zen. Kanpo hartu-emanetarako euskararen erabileran gailendu da Launa. Lazarraga sariek lehenengo edizioa dute 2010ekoa, eta datozen urteetan jarraipena izateko helburua dutela azaldu dute.

Upategia Arabar Errioxan dagoen arren, Berrizen du enpresak jatorria. "Egia esan ustekabean jaso dugu saria, baina katalogoa, webgunea eta fakturez gainera upategia, jatetxea eta bisita gidatuen zerbitzua euskaraz emateari balio handia eman dio epaimahaiak". ■ J.G.

# Ibilaldia baselizetan zehar, Okango auzoko jaietan

Mikel Deunaren jaiak ospatzen hasi ziren martitzenean; asteburuan emango diote segida

Okango auzoan jai giroan murgilduta dabiltza asteon. Hilaren 28an Donien atxa jaso eta txapligoak botata ekin zieten ekitaldiei, eta 29an odoloste-jana eta bolo txapelketa izan zituzten, besteak beste. Asteburu honetan ere izango da jaiagaz jarraitzeko aukerarik, eta, tartean, domekarako eratutako herriko baselizak lotuko dituen ibilaldia aipatu daiteke.

Goizeko 07:30erako ipini dute hitzordua Mikel Deuna baselizan. Elizondo, San Lorentzo, Zengotita, San Kristobal Txiki, Urdaixa, Andikona, San Pedro Txiki, San Fausto, San Antonio eta San Juan baselizetatik igaroz, berriro ere Mikel Deunakora hurreratuz amaituko dute ibilbidea. Martin Arriaga "Atxa"-ren oroimenezko martxa izango da. Dantza eta bertsoak ere izango dira eguerdian.

Zapatuan, arratsaldeko umeen jolasei eta txirrindulari lasterketa herrikoiari Etxeren kantaldiak segituko die, 19:30ean.

**Ibilaldiaren ondoren, dantza eta bertsoak ere izango dira domeka eguerdian**

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morcillas
Alberdi Harategia

ALBERDI
prekozinatuak

# BERBAZ>

# "Zoru pelbikoa gorputzeko beste atal bat da; tabu izateari utzi behar dio"

Emakumeek umea eduki ondoren eta menopausian landu beharreko muskuluen inguruan aditua da Idurre Zabala



**Idurre Zabala •**

- Berriztarra
- Fisioterapeuta

**Bizkarreko minaz eta burukoaz egunero egiten dugu berba. Beste gorputzeko atal batzuetako gaitzez, baina, ez da hain erraz berba egiten. Emakume askok inkontinentzia arazoak izaten ditu, zoru pelbikoa ahultzen joaten delako. Muskulu hau indartzeko ikastaroa ematen dihardu Idurre Zabala fisioterapeutak bere herrian, Berrizen.**

*Zer da zoru pelbikoa? Zein da bere eginkizuna?*
Pelbisaren azpiko partean ditugun muskulu guztien multzoa da. Bi funtzio dauzka: Esfinterra ixten du; txiza egiteko uretra, bagina eta uzkia ixten ditu, eta horregaz batera eutsi ere egiten ditu puxika, umetokia eta ondestea. Oso garrantzitsua da muskulu hauek ondo edukitzea, bestela, inkontinentzia arazoak izaten dira eta prolapsoa agertu daiteke (puxika jausi daiteke).

> "Abdominal tradizionalak txarrak dira zoru pelbikoarentzat"

> "Gernu jarioak asko mugatzen du emakumeen bizitza; kirola egiteko, bidaia luzeak egiteko... oztopo bihurtzen da"

*Zergatik ahultzen da?*
Emakumeen bizitzako etapetan, ahultzen joaten da. Haurdunaldiaren ondoren eta menopausian egoten dira aldaketa handienak. Erditzerakoan, muskulatura hori guztia zabaldu egiten da bertatik umea pasatzeko, eta gero errekuperatu egin behar da, errekuperatu egin behar dugu; landu egin behar den zerbait da. Garrantzitsua da ondo errekuperatzea, gero bizitza kalitate hobea edukitzeko. Menopausian, berriz, aldaketa hormonal garrantzitsuak izaten ditugu; muskuluak ahuldu egiten dira.

*Zelan bizi dute emakumeek arazo hau?*
Gernu jarioak asko mugatzen du emakumea bere eguneroko bizitzan; kirola egiteko, asko mugitzen bada txizak irtengo dio. Bilbora erosketak egiten joateko, tabernak zaintzen ibili beharko da, komunera joateko... Bizitza guztia mugitzen da inkontinentzia horren arabera. Oztopo asko daude: esfortzua egitea, dominstikua, pisua altxatzea, bidaia luze bat egitea...

*Orduan inkontinentzia da sintoma nagusia?*
Bai. Hiru inkontinentzia mota daude. Esfortzuzkoa da bat, dominstiku egitean, barre algara egitean, dantza egitean... irtetzen dena. Urgentziazkoan bat-batean etortzen da txizagura eta segituan komunera joan behar duzula sentitzen duzu, ezin diozu eutsi. Hirugarren mota mistoa da; biak batera ematen dira. Adibidez, katarro gogor bat hartuta txiza eskapatzen hastea alarma moduko bat izango litzateke: zoru pelbikoak ez du % 100ean funtzionatzen.

*Erditzean eta menopausian ahultzen da. Beste zer edo zelan ere bai?*
Adibidez, kirol asko eginez gero. Arineketan zoru pelbikoa golpatu egiten dugu, eta abdominal tradizionalak ere ez dira onak, zoru pelbikoa ahultzen dutelako.

*Zelako ariketak egiten dira zoru pelbikoa indartzeko?*
Oso pertsonala da, baina guk ikastaroetan ariketa orokorrak erakusten ditugu. Keggel ariketak, adibidez; bagina zabaldu eta ixteko ariketak. Gimnasia abdominal hipopresiba ere erakusten dugu. Muskulu horiek indartzeko abdominal bereziak dira. Gero ematen diegu aukera zoru pelbikoaren balorazioa egiteko. Balorazio bakoitzaren arabera, kasu bakoitzari zer komeni zaion ikusten dugu. Izan ere, batzuetan ariketekin ez da nahikoa izaten; zoru pelbikoa oso ahul badago, adibidez, ariketen aurretik elektroterapia erabiltzen da. Arlo honetan lantaldean lan egitea falta dela pentsatzen dugu; ginekologo, urologo, fisioterapeuta eta familiako medikuaren arteko elkarlana bultzatu beharko genuke.

> "Emakumeok arazoari buruz berba egiten hasi gara, isilik geratu beharrean"

*Zelan ikusten dituzu emakumeak? Kontzientziatuta daude?*
Geroago eta kontzientziatuago daude. Oraindik zonalde hau guretzako tabu bat da; emakumeoi hor behean begiratzea eta hor behean ukitzea oraindik gizartean ez dago ondo ikusita, oso liberalak garela ematen duen arren. Tabu hori alde batera utzi gura dugu; zoru pelbikoa gure gorputzeko beste atal baten moduan ikusi behar dugu, eta beretzako ona eta txarra zer den jakin. Ikastaroetara etortzen diren emakumeek gogo handia daukate ikasteko, arinago edo geroago konturatzen direlako arazo bat daukatela. Arazoari buruz berba egiten hasi gara, lotsatuta isilik geratu beharrean. Arazoa konpontzeko lehenengo pausua da hori. ■ A.Ugalde


Durango
Uribarri 13 • Tel.: 94 623 26 21
Konfiantzaren balioa
piso on
zure neurrira egindako konfiantzazko irtenbideak
MATIENA Erref. 002-1136
156.263€ (26 milioi)
2 logelako pisu eguzkitsua, ganbararekin. Berogailua.
BIKOTE GAZTEENTZAKO AUKERA ONA!
KIRIKIÑO Erref. 002-895
160.000€ (26,6 milioi)
3 logela. Orientazio ona. SUBENTZIONATUTAKO HIPOTEKA. 337/hileko (lehen 3 urteetan). KONTSULTATU.
DURANGO Erref. 002-1107
173.692€ (28,8 milioi)
Berriztatua. 3 logela, egongela handia, sukaldea eta komuna. Trastelekua.
SAN IGNACIO Erref. 002-870
192.323€ (32 milioi)
Eraikuntza berria. Beheko solairuak. 2 logela. 2 komun eta sukalde handia. Eguzkitsua. Estreinatzeko.
KALITATE-PREZIO PAREKAEZINA!
TABIRA Erref. 002-1164
192.323€ (32,9 milioi)
Tabirako zonaldean. Apartamentua estrenatzeke. Ikuspegi onak. Ganbara.
AUKERA ONA! EZIN EGOKIAGOA LEHEN BIZILEKUA IZATEKO!
DURANGO Erref. 002-1140
216.000€ (35,9 milioi)
Erdialdean kokatua. Guztiz berriztuta dagoen etxebizitza. 2 logela. Eguzkitsua. Orientazio ona.
BERRIA DIRUDI!
SASIKOA Erref. 002-882
237.400€ (39,5 milioi)
Orientazio oneko pisua. Eguzkitsua. 15 urte ditu. 2 logela eta berogailua.
EZ GALDU AUKERA HAU!
SALTZEKO PREMIA!
IURRETA Erref. 002-1145
245.813€ (40,9 milioi)
Pisu garaia igogailuarekin. Guztiz erreformatuta. Egongela handia, logela dobleak.
ZURE ETXEBIZITZA IZAN DAITEKEEN PISU POLITA!
ABADIÑO Erref. 002-1144
263.844€ (43,9 milioi)
Beheko solairua 160 m²-ko terrazarekin. 4 urte. 2 logela, garajea eta trastelekua.
BERRIA DIRUDI! SALTZEKO PREMIA!
SASIKOA Erref. 002-1180
264.445€ (44 milioi)
10 urte dituen pisu argitsua. 2 logela bikoitz, egongela, sukaldea eta komuna. Ganbara eta garajea.
AUKERA ONA!
DURANGO Erref. 002-831
270.455€ (45 milioi)
Landako zonaldean. 3 logela, komun bat eta bainugela. Garajea eta ganbara. AUKERA ONA!
NEGOZIAGARRIA!
F.J.ZUMARRAGA Erref. 002-1150
276.465€ (46 milioi)
14 urteko aintzinatasuna duen duplexa. 2 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua aukeran.
PLATERUEN PLAZA Erref. 002-719
294.495€ (49 milioi)
12 urteko etxebizitza. 120 m². 4 logela. 3 komun, 22 m2ko egongela, garajea eta trastelekua. NEGOZIAGARRIA!
FCO. IBARRA Erref. 002-1170
315.553€ (52,5 milioi)
Pisu garaia eta ederra. 5 urte aintzinatasuna. 80 m2, 2 logela bikoitz, balkoia, 2 komun, egongela handia, garajea eta ganbara. PISU ONA!
DURANGO Erref. 002-783
318.536€ (53 milioi)
Pisu altua igogailuarekin. Orientazio ona. 3 logela, 2 komun eta egongela handia ikuspegiekin. Berriztatua. Garajea eta trastelekua.
ZATOZ IKUSTERA, GUSTATUKO ZAIZU!
LURSAILA-BERRIZ Erref. 002-1166
324.546€ (54 milioi)
3.005 m²-ko lursaila. Bizitza unifamiliarra eraikitzeko aukerarekin. Ur tomak, argia eta telefonoa. ZURE AUKERA DA!
DURANGO Erref. 002-1149
348.587€ (58 milioi)
Beheko solairua 87 m²-ko terrazarekin. 2 urte. Orientazio ona. 17 m2ko garaje itxia. Egongela handia. BERRIA DIRUDI!
PLATERUEN PLAZA Erref. 002-1142
369.622€ (61,5milioi)
103 m²-ko pisu zabala. Hegoaldeko orientazioa. 3 logela doble, 2 komun, sukaldea balkoi eta eskegitokiarekin. Garajea eta ganbara. PISU ZABALA!
MURUETA-TORRE Erref. 002-839
372.627€ (62 milioi)
8 urteko aintzinatasuna duen pisua. 3 logela doble, egongela handia, 2 komun eta sukaldea. Garajea eta trastelekua. AUKERA ONA!
NEGOZIAGARRIA!
DURANGO
DURANGOKO ZONALDEAN
3 LOGELA, IGOGAILUA, GARAJEA ETA GANBARA DITUZTEN ETXEBIZITZEN BILA GABILTZA.
EROSLEA DAUKAGU!
Konfiantzaren balioa
piso on
.com
zure etxea saltzeko edo erosteko...
Zertifikatutako Bizkaiko lehen inmobiliaria sarea
ISO 9001
BUREAU VERITAS
Certification

# IRITZIA >

## Aupa lagunok!

Nola doa dena Durangaldean? Uda sasoia bukatzear den honetan, hartu al duzue juerga, lan eta borrokarako astirik? Seguru baietz! Iristen zaigu, noizbehinka, horko berri, zuen iritziak, eta guk geuk ere konpartitzen ditugu zuetako askoren ilusio eta beldurrak. Hori dela-eta, gu geu ere ez gara geldirik egongo.

Hasi berri dugun hilabete honetan, beste hainbat espetxetan bezala, estutu eta gogortu baino egiten ez dizkiguten bizi baldintza kaxkarrak salatzeko eta Euskal Herriko gatazka politikoa konpontzeko asmoz pausoak ematen ari den prozesu berriari gure babesa helarazteko, Navalcarneroko euskal preso politikook ere borrokaldi bati ekin diogu.

Larriak dira benetan gure senide eta lagunek pairatzen dituzten arriskuak, astero ehunka kilometroko errepide luzeetan galtzen direnean, maite dituztenekin egoteko aukera bakarra asfaltozko laberinto hori gurutzatzea dela jakinda. Ez daude egoera errazagoan larriki gaixo ditugun kideak, etsaiaren xantaia politikaren biktimak, bizi osoko gartzela zigor gogorren jo-puntuan daudenak, edo euren kondena beteta izan arren askatasunerako ateak ireki nahi ez dizkietenak, inoiz bete beharko ez luketen zigor hori bete eta mendeku gosea aurkari, hormigoizko kaiolara kondenaturik jarraitzen dutenak.

Arazoak ez dira horretan geratzen. Espetxeak lehian dabiltza uneoro euskal preso politikooi gure eskubideak nork gehiago zapalduko. Navalcarneron bertan, isolamendu modulutik pasatzen diren kideei ez diete euren bisitak asteburuetan izateko aukerarik ematen. Astean zehar baino ez dizkiete onartzen senide eta lagunak ikusi ahal izateko unetxo horiek, bidaia egin behar dutenei ere ezartzen dieten kondena hori areagotuz.

Mendekua baino ez dute helburu, eta xantaia lan-tresna. Ezin dute arrazoirik ulertu, ez baitago ikusi nahi ez duena adinako itsurik. Ez dute onartu nahi, patioan oinez gabiltzala begiratu hutsez bereizi gaitzaketela gainontzeko presoengandik; ez dute onartu nahi gure herriaren alde egunez egun lan egiteagatik gaudela hemen, gatazka politiko baten ondorio garela; ez dute status politikoa onartu nahi.

Askatasuna lapurtu diguten arren ez dugu gure aldarrikapenetan amore emango, eta gure eskura ditugun baliabideak erabiliz jalgiko gatzaizkio xantaia eta mendeku espetxe politika horri.

Iraila, beraz, borrokan emango dugu, gure etxeetatik, gure herrietako kaleetatik urrun egotera kondenatuta gaudenok. Baina ikasturte berri honen hasierak denentzako suposatuko du lan eskerga, herri eta kaleak irabazi behar ditugu etsaiaren jazarpenaren aurrean pausuak ematen jarraitzeko. Ikastetxe nahiz lantegietan indarrak bildu behar ditugu horrenbeste min eragin duen eta eragiten ari den gatazka hau konponbidera eramateko. Independentziaren aldarriaren pean bildu behar gara euskaldun abertzale guztiok, gu euskaldunak garela ozen oihukatzeko.

Hau guztia dela-eta, bakoitza bere esparrutik bere aportazioa egitera deitzen dugu, nahiz barruan nahiz kanpoan helburu bakarreko bide bat markatuz, zuen borroka delako gure birikak puzten dituen hauspoa!

Eñaut Aiarzaguena

## Euskal errepresaliatuak etxera

Gaurkoan, gure lehenengo hitzak, berriki era basatian torturatuak izan ondoren espetxeratuak izan diren bederatzi euskal herritarrentzat eta euren senide eta lagunentzat dira. Bereziki, Egoitz Garmendia Otxandiokoarentzat eta donostiarra izan arren Urko Aierbe Durangon bizikide genuenarentzat. Baita, gurekin 28 urte baino gehiago espetxeratuta egon ondoren Erandiora itzuli den Jon Bilbaorentzat ere! Espetxe politika kriminalaren fase guztiak eta krudelkeria lehen pertsonan ezagutu ditu, baina duintasun osoarekin aurre egin, eta egun gurekin da berriz ere! Bejondeizula, Jon. Bidelagun izan dituzunei ere, agur bero bat. Baita Joxe Mari Zaldua euskal militante politikoaren senide eta lagunei ere; bizikletan zihoala bihotzekoak eman zion eta hil egin zen iheslari politikoa, espetxea eta ihesa ezagutu zituen urte luzez.

Euskal Herrian aldaketarako fasea irekitzen ari da. Erantzukizunarekin jokatu behar dugun denbora da honakoa. Presoen eskubideen errespetua azpimarratzeari ezinbestekoa deritzogu Euskal Herrian demokrazia eta bakean oinarritutako eszenatoki bat sortze bidean.

Egun indarrean mantentzen duten espetxe politika, herri honetan erabiltzen den indarkeria ankerrena dugu. Estatuek euren reditu politikoak lortu asmoz eta herri honen etorkizuna baldintzatzeko asmoz bultzatua dagoena, hain zuzen ere.

Egoera honekin amaitu behar dugu. Sakabanaketarekin, Bizi Osorako Zigorraren aplikazioarekin, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak ez askatzearekin. Isolamendu eta bakartze egoerak indargabetu behar dira. Espetxeak inpunitate eremu dira, non gure senide eta lagun presoak kolpatuak, mehatxatuak edo umiliatuak izaten diren.

Kasik urtebete daramagu katxeo umiliagarrien saiakerak direla-eta espainiar Estatuan aurrez aurreko bisitak galtzen. Andaluziara doan autobusa harrikatu dute, eta azken asteetan gure kontrako erasoak eta kontrol polizial pertsonalizatuek gora egin dute. Iheslari politikoen kontrako oldarraldiak ere bere horretan dirau.

Preso politikoen aurka ezarritako salbuespeneko neurriek eta oro har Kolektiboa suntsitzeko helburuz aurrera eramaten ari diren espetxe politika ankerrak beti izan dute aurrean euskal preso politikoen jarrera irmoa beraien eskubideen defentsan. Azken urteotan Kolektiboaren aurkako salbuespeneko neurrietan sakontzeko urratsak eman dituzte espainiar nahiz frantziar estatuek, eta egoera larri honi erantzun irmo bat emanez urte osoan zehar luzatuko den borrokaldiari ekin zion Kolektiboak urtarrilean.

Urte osoan zehar luzatu den borrokaldiaren azken txanpan sartu gara irailean, eta borrokaldi mugikorrean murgilduak daude Espainiako eta Frantziako hainbat espetxe. Irailaren 1ean hasita espetxeotan dauden euskal preso politikoak ekimen ugari burutzen ari dira, espetxe politika ankerrari aurre egiteko.

Txandaka egindako borrokaldiaren testigua hartu dute Villefranche sur Saone, Aranjuez, Cordoba, Villena, Valencia 2, Valencia 3 eta Valdemoro espetxeetako presoek, eta ekimen ugari burutzen ari dira:

Lehenengo astean borrokaren arrazoiak azaltzeko ekimenak burutu zituzten, bigarren astean janaria errefusatu, hirugarren astean txapeoa egin zuten eta azken aste honetan gose greban daude. Espetxe hauetan Oier Gonzalez , Aitzol Maortua, Adur Aristegi, Jon Urretabizkaia, Iñigo Akaiturri, Gillermo Merino, Saioa Agirre, Iñaki Pujana eta Enrike Garate Durangaldeko preso politikoak aurkitzen dira.

Borrokaldiaren arrazoiak:

- Euskal preso politikoei ezartzen zaizkien muturreko egoerei erantzun eta preso politiko bezala dagozkien eskubideak lortzea
- Euskal preso politikoei ezarri zaien biziarteko zigorra bertan bera gelditzea
- Gaixotasun larriak dituzten euskal preso politikoen egoera salatzea, dagokien askatasuna bideratu arte.

Euskal preso politikoen Kolektiboari muturreko egoerak ezarri zaizkie, espetxeetan egoerak oso larria izaten jarraitzen du eta espetxeetako egoera larriari erantzuteko xedea du borrokaldiak.

Euskal Herrian aro politiko berri bat zabaldu den honetan, euskal preso politikoen eskubideen alde ekimena indartu behar dugu datozen hilabeteotan. Frantziar eta espainiar gobernuek dituzte espetxeetako giltzak, eta ezinbestean bi gobernu hauei presioa egin behar zaie espetxeetako ateak ireki ditzaten. Abian den prozesu politikoak amnistiarainoko bidea egin behar du ezinbestean, euskal preso eta iheslari guztiak eskubide ororen jabe etxean izan arte.

Amnistiaren bidean euskal preso politikoen oinarrizko eskubideen bermea izango da lehen mugarria. Kolektiboari ezarri dizkioten muturreko egoerak altxatzera jo behar dugu, biziarteko espetxe zigorrarekin amaituz, gaixo dauden presoak askatuz eta sakabanaketarekin amaituz. Aldarrikapen hauek dira nagusi euskal preso politikoak burutzen ari diren borrokaldian, eta aldarrikapen hauen inguruan kale mobilizazioa eta erakundeen inplikazioa eta konpromisoa antolatzea beharrezkoa izango da. Horretara dei egiten dizugu herritarrak.

Errepresaliatu politikoen senide eta lagunok argi adierazi nahi dugu, orain arte bezala lanean jarraituko dugula. Gure senide eta lagun espetxeratuen eskubideak errespetatuak izan arte eta, azken finean, Euskal Herriak etorkizun hobe bat ezagutu dezan, ez dugu deskantsurik hartuko.

Durangaldeko errepresaliatuen senide eta lagunak

## Sei hankako mahaia



Jose Luis **Zubillaga**
**Ezker Batua**

## Protestarako arrazoi ugari

Bizi dugun hau hamarkadetako eskubide sozialen murrizketarik lazgarriena da, ez bakarrik estatu mailan, Europa osoan baizik.

Garbi geratu da ezker alternatibo eta eraldatzaileak aspaldi salatutakoa: europar sozialdemokraziaren eta liberalismoaren merkatuekiko menpekotasuna, krisiaren jatorriarekiko arreta desbideratuz eta irtenbidea kaleratzeak merkatzea, pentsio duina lortzeko baldintzak zailtzea eta zerbitzu publikoak progresiboki eskastea dela sinestaraziz.

**Azken hamarkadetan ezagutu dugun eskubide sozialen murrizketarik lazgarriena da bizi duguna**

Espainiako estatuan PSOEren gobernuak ekarri du estrategia hau agenda politikora, bankuei 75.000 milioi euro eman eta gero, eta zentro-eskuineko alderdiek (PP, PNV, CIU eta CC) babestutako ekintza eta proposamenokin: 2010eko aurrekontuak murriztea; urtarrilaren 29ko austeritate plana, 50.000 milioi euroko murrizketekin; jubilatzeko adina 65 urtetik 67ra atzeratzea eta %100 jasotzeko zenbaketa luzatzea; BEZa igotzea, patrimonioagatiko zerga jaitsi eta gero; maiatzaren 12ko doitze plana, beste 15.000 milioi euroko murrizketekin, pentsioei, emakumeei, mendekoei eta funtzionarioei eraginez; lan merkatuaren erreforma onartzea, kaleratzea erraztuz, azkartuz eta merkatuz, aldi baterako lana betikotuz, enpresarien boterea handituz eta negoziaketa soziala ezbaian jarriz.

Horren aurrean, Ezker Batua-Berdeak alderdiak guztiontzako lana, lan baldintza justuak eta jubilatu ondorengo pentsio duinak izango ditugun gizarte eredu baten aldeko defentsa egitea beharrezkoa dela deritzo.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria
Anboto komunikabideak Elkartea
2010eko urriaren 1a - 9. urtea - 388 zk.

Laguntzailea: BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia

Eta honako Udal guztiak:
Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio, Zaldibar

**Zuzendaria**: Jone Guenetxea.
**Erredakzio burua:** Joseba Derteano.
**Administrazioa**: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
**Publizitatea**: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
**Erredakzioa**: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.
**Maketazioa**: Ainhoa Arizmendiarrieta.
**Testu zuzentzailea**: Igor Elortza.
**Argazkilariak**: Ana Domínguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# KULTURA>

**LITERATURA>** ELKARRIZKETA

# "Garai bateko zineforumen erakoak izango dira saioak"

Urriaren 8ra arte eman daiteke izena **Harkaitz Cano**k gidatuko dituen '**Telesailen urrezko aroa**' tertulietan. Bakoitzean serietako bat ardatz hartuta, AEBetan ekoitzitako 'Seinfield', 'Extras/The Office', 'Six Feet Under', 'The Soprano's' eta 'The Wire' aztertuko dituzte Durangoko Udal Liburutegian. Urriaren 14, 21 eta 28an, eta azaroaren 11 eta 18an dira saioak. Idazleagaz jardun dugu literaturaren eta telesailen arteko hartu-emanaz.

***Egin duzu hau lako saiorik beste nonbaiten lehenago?***
Durangon moduan, bost asteko luzapenagaz, ez dut aurretik sekula egin; gehiago izan dira hitzaldi puntualak, edo jende espezializatuarentzako ikastaroak eta halako gauzak. Zine-forum edo teleforum formatu honetan egingo dudan lehenengo aldia da.

***Telesailen inguruko foruma izatea egiten zaigu berezi.***
Orain urte batzuk hasi nintzen telesailen mundu horretaz interesatzen; batez ere, gidoigintzan lan egiten hasi nintzenean. Zinema eta literaturari buruz argitaratu nuen saiakeraren ondoren pentsatu nuen literaturak telebistarekin daukan harremanaz ez dela behar beste hitz egiten. Orain hasi da joera hori apur bat aldatzen: batez ere, *The Soprano's*, *Madmen* edo *The Wire* moduko teleserieak modan ipintzen hasi direnean. Horrela sortu zait horretaz idatzi, pentsatu eta hitz egiteko gogoa.

> "Zineman baino gauza transgresoreagoak egin daitezke gaur egun telesailetan"

***Literatura eta zinemazalea den publiko zehatza badago?***
Kable sistemaren bidezko telebista baliatuta, publiko oso zehatzari bideratutako telesailak egiten dituzte Estatu Batuetan gaur egun. Lehen nobela edo zinema izan diren bezala, telesailak dira orain abangoardia; horrek esan nahi du ez dutela zertan politikoki zuzenak edo familia guztiari zuzendurikoak izan. Zineman baino gauza transgresoreagoak egin daitezke telebistan gaur egun: medio azkarragoa, flexibleagoa eta merkeagoa da telebista. Zinemaren moteltasunak etsita zeuden gidoilari askok telebistan aurkitu dute azken urteetan euren lekua.


Conny Beyreuther

> "Telesailetako zuzendariak ez ditugu ezagutzen: gidoilaria da seriaren jabea"

***Gidoilari batentzat, esperimentaziorako gune aproposagoa da telebista zinema baino?***
Gidoilariaren lana da telesail hauetan ardatza. Zineman, pelikularen zuzendaria eta aktoreak dira Cannes edo bestelako jaialdietan pelikula aurkezten eta defendatzen ikusten ditugunak: pelikula zuzendariarena dela ematen du. Telesailak aldiz, argi eta garbi gidoilariarenak dira. Ez ditugu serietako zuzendariak ezagutzen; telesailaren jabea gidoilaria da.

***Eta horrek izango du azken emaitzan zerikusirik, ezta?***
Noski, horrek esan nahi du, gidoilariak azken produktuaren gainekokontrola daukanean askoz inplikazio handiagoa izaten duela. Ez da enkarguz lan egitea bezala. Gidoilaria da jaun eta jabe.

***Zinematik aldendu eta telebistara gerturatu zara zeu ere?***
Ikusle moduan, *A dos metros bajo tierra* izan zen niretzako inflexio puntua, eta horren ondoren *Madmen*, *The Soprano's* eta *The Wire*. Telesailei abantaila asko ikusten dizkiet, gainera, gidoilari moduan...

***Zeintzuk dira abantaila horiek?***
Bost denboraldiko telesail batean, 60 ordu izan ditzakezu eskura, eta ondo erabiliz gero, kontatzeko espazio handia daukazu; pertsonaien eboluzioa, beraien kontraesanak, eta zenbait istorio kontatzeko espazioa abantaila handia da. Telesailak XIX. mendeko nobelagaz badauka antzik: berrogeita hamar ordutan *Ana Karenina* edo *Guerra y paz* bat kontatu dezakezu... Azken urteetan literatura gehiago ikusi dut telesail hauetan, hainbat liburu eta pelikuletan baino. Bestetik, telebistan dialogoak inportantzia handia dauka, eta elkarrizketen maila, sarkasmoa eta ironia koxka bat haratago eraman ditzakezu.

***Bost saio egingo dituzue Durangoko Liburutegian.***
Bost saio egingo ditugu oraingoz, eta zelan doan arabera luzatuko dugu, beharbada, hurrengo urtean. Hainbeste telesail daude, zaila da aukeraketa egitea... Oraingoz, klasikoak direnak aukeratu ditut, hemendik hogei urtera iraungo duten telesailak...

***Zelakoak izango dira saioak?***
Garai bateko zine-forumen erara pentsatu ditut: aurkezpentxo bat egin, telesailaren atal bat proiektatu, eta tertulia batean sorrarazi dizkigun sentsazioak partekatzea. ■ I.E.

## Gizartearen "alde ilunenen" isla diren serieak

"Sakontasun karga handia" dutenak batzuk eta dilema etiko eta filosofiko asko azaltzen dituztenak dira, besteak beste, *Neguko zirkua, Pasaia blues* eta *Belarraren ahoa* nobelak idatzi dituen Canoren gustuko telesailak: izan ere, bere berbetan, "gizartearen isla argiago ikusten da gaur egun telesail horietan zineman baino".

Orain hamar urte, New Yorken bizi zenean ezagutu zuen *Seinfeld* telesaila: hor hasi omen zen konturatzen egoerak era garratz eta interesantean lantzeko, telebistak zuen indarragaz. Ondoren ezagutu ditu Durangoko Liburutegiko saioetan berbagai hartuko diztuenak lako beste hainbat sail: *The Soprano's* eta *The Wire*...

"Surrealismoaren iturrietatik edaten zuen telesail-literarioa", *Doctor en Alasca*, ere ekarri du Canok elkarrizketan gogora: "Seriearen momentu batean Jack Londonen poema bat oso-osorik irakurtzen zuen irrati-esatariak...". Gauza horiek egiten hemengo telebistan gidoilariei ez dietela sekula utzi dio: "Hemengo telebista generalistagoa, familia guztiari zuzendurikoa, umore beltzik bakoa, testu gutxikoa izan da beti...".

Lehenago zinemak eta literaturak egin duten bezala, "gizakiaren alde ilunean aztarrika egiten duten" telesailak ditu Harkaitz Canok gogoko. Horrelako bost hautatu, eta Durangaldeko zaleekin konpartitzea da Canoren proposamena.

**MUSIKA>** KONTZERTUAK

# Punkaren lau hamarkadatako historia bizi-bizi: Oktoberfest

Urriaren 2an, bihar, Durangoko Landako erakustazokan da laugarren Oktoberfest jaialdia

Musika egiten, punk-rocka jorratzen, lau hamarkada daramatzaten taldeak dira bihar, Durangoko Landako erakustazokan, 16:30ean hasiko den *Oktoberfest* jaialdian joko duten Cock Sparrer, Slaughter And The Dogs, eta Stiff Little Fingers; Ingalaterra eta Irlandako hiri industrialetan 1970 eta 80ko hamarkadetan sortuak hirurak.

Galizia, Madril eta Kataluniatik, Durangoko biharko jaialdira etortzeko autobusak antolatu dituzte, asko dira-eta Landako erakustazokako jaialdiko kartelak jasotzen dituen nazioarteko taldeak ikusteko ehunka kilometro egiteko prest daudenak.



> Ingalaterra, Irlanda eta Japongo taldeek joko dute, besteak beste

> Musika egiten 1970eko hamarkadatik diharduten taldeek joko dute

Besteak beste, hamaika urte zituztenetik elkar ezagutzen duten Londresko lau musikarik 1972an sortutako Cock Sparrer taldea ere badator Durangoko *Oktoberfest* jaialdira, urri amaieran Glasgown eskainiko duten zuzenekoaren aurretik. Orain hiru urte, 2007an kaleratu zuten *Here we stand* diskoa musikari ingelesek, eta azken horretan zein aurreko urteetan ezagun egindako punk-oi erritmo biziko kantak joko dituzte.

1977an Belfasten sortutako Stiff Little Fingers laukotearen musika ere gozagai izango da Landako erakustazokan, bihar. Euren jaioterriko, Belfasteko, bizimoduari eta politikari buruzko berbak eta erritmo biziak uztartuz sortutako kantak eskainiko dituzte zuzenean. Ipar Irlandako egoera politikoak eragindako frustraziotik eta militarismoaren zein arrazismoaren kontra sortu zituzten letra horietariko asko.

Hirogeita hamarreko hamarkadan Manchesterren sortutako Slaughter And The Dogs laukotea ere badator Durangoko urriko jaialdira: eskolan elkar ezagutu zutenetik elkarregaz jotzen dute Wayne Barrett taldeko abeslariak eta Mick Rossi gitarristak.

Far From Finished talde estatubatuarrak, bestalde, uda honetan kaleratu duen *Forgettable* diskoa aurkeztuko du biharko Landako erakustazokako kontzertuan.

Aipatutakoez gainea, punk doinuak lantzen dituen Cobra laukote japoniarra ere badator *Oktoberfest*en parte hartzera. Iaz kaleratu zuten *Hello! This Is COBRA* hamargarren diskoan bildutako kantak joko dituzte.

Mortis Causa, Des-kontrol eta Segismundo Toxicomano euskaldunak eta Kelto galiziarrak ere entzungai izango dira bihar. ■ I.E.

> Segismundo Toxicomano, Des-kontrol eta Mortis Causa ere tartean dira




## GEURE DURANGALDEA



Miren Amuriza,
**Bertsolaria**

### Plazan elkartuko gara

Kanta ezagun batek dinon legez, "*udazken arratsaldetan iluntzen duenean hostoak erortzen dira negar tanten moduan*". Sanmigeletako azken kriskitin hotsak isiltzeagaz batera, egunak laburtzen eta giroa freskatzen hasiko dira.

Gehienok artilezko jertseen azpian gordeko garen arren, inguruetako arboladiak biluz-biluzik geratuko dira laster. Haizeak suabe-suabe eroango ditu gure etxosteko pagoaren orbelak; baita neguko domeka arratsaldeak be. Putz egin ordulko banan-banan jausiko dira arrametatik eta kalendarioaren orrietatik.

Zuetariko askok koman pasatuko dozuez domeka arratsaldez horreek; bezpera gaueko azken tragoa bi, hiru edo lau aldiz hartu izanaren damuagaz. Beste batzuk, kolakaua eta mantarekin pelikula eskasen bat ikusten amaituko dozue astea, negarrez. Edo biharamuneko bazkaria prestatzen, edo seme-alabak oheratu ezinik marmarrean.

Baina bizitza laburregia da erdia goibeldurik igarotzeko, eta astea are laburragoa. Beraz, domeka arratsaldeei orbelen antzera igartzen itzi ordez, emon egiezue bizitasun apur bat. Datorren astean bertan Bizkaiko Bertsolari Txapelketa hasiko da Mungian, eta urriaren 10etik abenduaren 18ra bitartean hamaika herri beteko doguz kantuz.

Txapela be orain artean Durangon egon da. Aurtengoan, ostera, orbelekin batera ibiliko ei da Bizkaia osoan zehar hegaz non pausatuko. Guretzat plazer bat izango da zuen domeka arratsaldeak umorez eta emozinoz betetzea. Halan gura badozue, plazan alkartuko gara!

**PINTURA>** LEHIAKETA

# Hamargarren Durango Uria margo lehiaketaren sariketa urriaren 3an

Joan zen barikutik eguen honetara bitarteko epea izan dute artistek euren koadroak lehiaketara aurkezteko

Durangon bizitzea edo Durangoko Artisten Elkarteko kide izatea dira hamargarren Durangoko Uria margo lehiaketan parte hartu ahal izateko baldintzetako bi. Hain zuzen ere, atzo zuten parte-hartzaileek euren koadroak Arte eta Historia Museoan edo San Agustin kulturgunean aurkezteko azkeneko eguna.

> Gai eta teknika librea baliatuta aurkeztu ahal izan dituzte lanak

> Urriaren 3an egingo dute, Ezkurdin, sari banaketa ekitaldia

Gaurtik domekara arte, udaleko kultura saileko ordezkari batek, Museoko ordezkari batek eta hainbat artistak osatutako epaimahaiak jardungo du lehiaketako irabazleak hautatzen.

Ezkurdiko erakusketa aretoan, 18:00etan egingo dute sari-banaketa domekan, eta luntxa izango da, ondoren, bertaratzen diren guztientzat. Urriaren 3tik 13ra, berriz, Ezkurdiko udal erakusketa aretoan bertan egongo dira lanak ikusgai.

Gai eta teknika librea baliatuta parte-hartzaileek aurkezten dituzten margolanen artean banatuko dituzte hamargarren Durango Uria lehiaketako lau sariak: 600 eurokoa da lehenengoa, 450ekoa bigarrena eta 300ekoa hirugarrena; 300ekoa emango diote durangar partehartzaile baten lan onenari ere.

Durangoko Artisten Elkarteak antolatu eta udalak babesten du udazkeneroko Durango Uria sariketa. ■ I.E.

> Lehiaketara aurkeztu dituzten lanak urriaren 13ra arte erakusketan

MUSIKA> KONTZERTUA

# Bere bakarkako lana aurkeztera dator Eric Fuentes Plateruenera

Gaur 22:00etan da The Unfinished Sympathy taldeko abeslari izandakoaren emanaldia



Aurretik The Unfinished Sympathy musika taldeko punk, hard rock eta pop ukituko kantei ahotsa eta akordeak ipintzen entzun izan dugu Bartzelonako Eric Fuentes musikaria Plateruenean; aurreko urteetan, behin baino gehiagotan jo dute Durangoko antzokian.

Bost disko grabatu ditu Fuentesek The Unfinished Sympathy taldeko hiru taldekideekin; azkena, 2009an Subterfuge ekoiztetxeagaz kaleratu zuten *Avida Dollars* izenekoa. Maiatzean taldea desegin zuten arte ehunka kontzertu eskaini izan ditu The Unfinished Sympathy taldeagaz.

Oraingoan, baina, gaurko 22:00etako Durangoko Plateruenneko emanaldian, bakarlari moduan egiten duen lana erakutsiko du musikari kataluniarrak.

Izan ere, The Unfinished Sympathy taldeko abeslari eta gitarrista lanetan jardun aurretik, 1997an kaleratua zuen *Descarrilant* izeneko bere bakarkako lehenengo diskoa gaur Plateruenean zuzenean izango dugun Fuentesek: 21 urte zituen lehenengo bakarkako lan hura kaleratu zuenean.

Otsailerako kalean eduki gura duen bakarkako hirugarren diskoa grabatzen dihardu musikariak ikasturte berriaren hasiera honetan. Durangora gaur, aurreko gauean Bilbon jo ondoren dator musikaria, eta Galizia eta Katalunian ditu bere kantak zuzenean eskaintzeko udazken honetako hurrengo hitzorduak.

Soinu elektronikoak, ahotsa eta gitarra uztartuta erritmo dantzagarriak sortzen dituen artista Durangon da berriro, eta bakarkako proiektu berrian entzuteko da aukera gaurkoa. ■ I.E.

> Eric Fuentes The Unfinished Sympathy taldeko ahotsa izan da

> Otsailean kaleratuko duen bakarkako diskoa grabatzen dihardu

LITERATURA> BERBALDIAK

# Tertulia eta hitzaldietarako gaitzat hartuko dituzte amatasuna eta aitatasuna

Urrian hasi eta abendura arte txanda bi egingo dituzte. Saroa Bikandik gidatuko ditu eguaztenetako saio hauek

Amatasunagaz eta aitatasunagaz lotutako gaien inguruan euren esperientziak partekatu eta informazioa konpartitzeko pentsatutako saioak dira urria, azaroa eta abendurako Durangoko Udal Liburutegian antolatu dituztenak.

> Esperientziak eta informazioa konpartitzea dute saioek helburu

Eguaztenetan 19:00etan izango dira saioak, eta askotariko gaiak jorratuko dituzte bertan: erditzea, erditze ondorena, edozkitzea, umearen heziketa eta abar. Gai horiek guztiak lantzeko, adituek gomendaturiko literatura aztertuko dute parte-hartzaileek, eta tertulia bihurtuko dituzte saioak.

**Gurasoendako berbaldiak**

Juan Carlos Alonso psikologoaren eskutik, gurasoentzako baliogarri izan daitezkeen hainbat hitzaldi antolatu dituzte Durangoko Liburutegian, udazken honetarako: Urriaren 1ean eta 26an, azaroaren 26an eta abenduaren 30ean izango dira berbaldiak. Seme-alaben hezkuntzagaz lotuta, autoritatea eta teknologia berrien erabilera aztertuko dituzte, esaterako. ■ I.E.

> Alonso psikologoak eskainiko ditu udazkeneko berbaldiak

ANTZERKIA> EMANALDIA

# Berrizko Txintxaun Kolektiboaren zahartzaroari buruzko antzezlana

Urriaren 7an, 20:00etan, eskainiko dute *Cuadros de amor y humor al fresco* antzokian

Maiatzean Berrizko Kultur Etxean aurkeztu zuen Txintxaun antzerki taldeak *Cuadros de amor y humor al fresco* antzezlana. Eguen iluntzean, Durangoko Plateruneko oholtzatik eskainiko dute.

> Maiatzean Berrizko Kultur Etxean aurkeztu zuten antzezlan hau

Benita eta Paco izeneko pertsonaia biren bizipen, oroitzapen eta sentipenei buruzkoa da Txintxaun antzerki taldeak prestatu duen lana. Sei eszena diferente taularatuko dituzte Txintxaun Kolektiboa taldean dihardutent dozena bat aktorek, bikoteen askotariko hartu-emanak erakutsiz. Maitasunari eta maitasun faltari buruzko gogoetak oholtzaratzen dituzte antzezle gazteek, Rosa Martinez-Alcocerrek zuzendu duen antzezlanean. Guztiak ere umorezko begirada batetik, eguneroko hainbat egoerari buruzko eszenak dira Jose Luis Alonso de Santosek idatziriko antzezlanaren testukoak. ■ I.E.

> Txintxaun taldeko 12 antzezleren lana biltzen duen antzezlana



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

URRIAK 1 22:00etan
ERIC FUENTES (The Unfinished Sympathy) + THE BRONTES
KONTZERTUA. Sarrera: 8-10euro.
URRIAK 7 22:00etan
CUADRO DE AMOR Y HUMOR AL FRESCO-TXINTXAUN KOLEKTIBOA
ANTZERKIA. Sarrera: 3euro.
URRIAK 8 22:00etan
XIII. GAU ELEKTRONIKOA
Sarrera: 10euro. (+ flyer 6euro)
Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300


TRES
Mutis producciones (Madrid)
Urriak 3 • 19:00etan
Guk ere iraila umeei eskaintzen diegu
San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA



# Gremioen gida

## Iturgintza

Arriandi ITURGINTZA
Klimatizazioa
Kalefakzioa
Iturgintza
Gasa
Arriandi, 16 - behea, 3 atea
Sakelakoa: 607 24 58 54
Faxa: 94 681 61 58
Iurreta
Baimendun Instalatzailea

Mallabiena
M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA,S.L.
Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta• Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com
K21

Solaguren Kalea, 4
tel/faxa 94 681 44 74
MATIENA/ABADIÑO
urtiaga
gremioen koordinazioa
BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Ubide iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza
188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

## Elektronika

URBASA Elektronika
SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEOA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK
Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango
Panasonic
Televés Instalatzaile Ofiziala

## Argiztapena

ARGIZTATZE TEKNIKAK
MARKIEGI
Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

## Arotzeria

EGUIA s.l.
AROZTEGIA
• GREMIOEN KOORDINAZIOA •
Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653
Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaeguia.com

## Lorazaintza

Jardines Patxi Lorategiak
Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik
Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

## Eraikuntza

arlax
ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA
Baserriak eta etxebizitzak berriztatu eta zaharberritzea
Zurezko egiturak
Barrualdea diseinatzea
Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.
Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B
DURANGO
Sakelekoa: 615 77 91 70
605 77 03 57

## Pintura

Ibai Urien Madrazo
Pintura apaingarria eta industriala
Pinturas Sagasta Pinturak
• Fatxadetarako proiektu bereziak (inpermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
• Era guztietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)
• Aurrekontuak, konpromezu gabe
Sagasta auzoa
Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO
Bizkaia
Tel.: 629 143 944

## Garbiketak

AZKARGI
GARBIKETAK
Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak
Goieta, 46 - 2.esk - Elorrio - 615 79 12 15

## Informatika

elaia iT
Information Technology S.L.
ZURE SISTEMA INFORMATIKOA EZ DA UMEEN JOLASA
• TIC aholkularitza
• Ekipamendu hornikuntza (kontsumigarriak)
• Konfigurazioa eta instalazioa
• Mantenimendua
• Formazioa
• LOPD/LSSI adaptazioa
www.elaia.es • e-mail: info@elaia.es
Tel.: 94 640 98 98

# KIROLAK

## Pablo Berasaluze Pilota Txapelketako finalak domekan

### Txapelketaren bigarren aldiko finalak jokatuko dituzte kimu, haur eta kadete kategorietan; Urain durangarrak eta Andueza iurretarrak final banatan parte hartuko dute etzi

Esku pilotagaz gozatzeko hainbat hitzordu dugu asteburu honetan Iurretako Olaburu pilotalekuan. Gaur San Migel Torneoko finalak jokatuko dituzte. Domeka goizean Pablo Berasaluze II. Txapelketako finalak ikusi ahalko dira eta, hori gutxi balitz, arratsalderako Asegarce enpresako pilota partidu profesionala antolatu dute: Bengoetxea VI.a eta Ruben Beloki Urrutikoetxea eta Alexis Apraizen aurka.

Pablo Berasaluze Pilota Txapelketa kimu, haur eta kadete mailatan jokatuko dute. Maila horretan Urain durangarrak jokatuko du Munitibarko Garro bikotekide duela; Gabirondo donostiarra eta Arrasateko Murua izango dituzte arerio. Haurren artean Andueza iurretarrak Urdulizko Gorostiaga izango du bizkartzain, Garate arrasatearraren eta Urizar markinarraren kontra. Amaitzeko, kadete mailan, Iturriaga nafarrak eta Azkueta zaratamoarrak Dario errioxarraren eta Sainz galdakoztarraren kontra jardungo dute norgehiagoka.

**Iaz baino maila hobea**

Iaz izen-ematea gehienbat irekia izan zuen txapelketak eta aurten, zerrenda gehiago mugatuz, pilotariak gonbidapenen bidez ekartzea erabaki dute. Horrek txapelketaren maila hobetu du eta, batez ere, kadeteetan kalitatezko hainbat partidu ikusi ahal izan direla azpimarratu dute antolatzaileek.

Datorren urtera begira sistema bera erabiliko dute, eta aurten etorri ez den hainbat pilota eskolak bere interesa erakutsi duenez (Gipuzkoa, Errioxa zein Nafarroatik), segurutik pilotari gehiago gonbidatuko dituzte datorren urtean.

Domekan, 16:30etik aurrera, partidu bi antolatu dituzte. Kadete mailako lehenengoan, Bereinkuak eta Otaduik Calleja eta Ibarrondoren kontra jokatuko dute. Azken hori ez beste guztiak Olaburu kirol elkarteko pilotariak dira. Iaz Callejak eta Ibarrondok Pablo Berasaluze txapelketa irabazi zuten nork bere kategorian, eta Bereinkua azpitxapeldun izan zen.

Partidu horren ondoren profesionalen txanda izango da. Pablo Berasaluze ez da bere eskuko lesiotik errekuperatu eta Mikel Urrutikoetxeak jokatuko du bere ordez. Oraindik badaude sarrerak; gaur arratsaldean Olaburun egongo dira salgai. Izan ere, gaur 19:00etan, San Migel Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte gazteetara bitarteko maila guztietan. ■ J.D.



Pablo Berasaluze eta Alexis Apraiz egon ziren finalen aurkezpen ekitaldian.

> Aurten zerrenda mugatu eta pilotariak gonbidapen bidez ekarri dituzte

> Gaur, 19:00etan, San Migel Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte

> Bengoetxea-Beloki eta Urrutikoetxea-Apraiz ere lehiatuko dira etzi

## Zesta txapelketako finalerdi bat Durangon

### Urriaren 9an jokatuko dute Ezkurdi Jai-Alain binakako zesta txapelketako finalerdia

Munduko Pilota Batzarrak antolatuta, Master jai eta Jai Alive enpresako sei bikote onenak profesional mailako binakako zesta-punta txapelketa jokatzen dabiltza. Iaz legez, aurten ere finalerdi bat Durangoko Ezkurdi Jai Alain jokatuko dute; urriaren 9an izango da, 22:30etik aurrera.

Lehenengo finalerdia egun berean baina 18:00etan jokatuko dute, Markinan. Finala Hondarribiak hartuko du urriaren 12an. Iaz Foronda eta Lopezek jantzi zuten txapela. Aurten lehenengoak Hernándezegaz eta bigarrenak Egiguren II.agaz jokatuko dute. 2006an eta 2007an txapelketa irabazi zuten Goikoetxea eta Enbilek elkarregaz jokatuko dute.

Bestalde, urriaren 13an Durangon eta 15ean Markinan Felix Espilla zestalari berriatuarra agurtzeko eta omentzeko jaialdiak egingo dituzte. ■ J.D.


Abadiñon aurkeztu zuten aurtengo txapelketa.

## Tabirako Baquék irabazi egin zion Zornotzari saskibaloian

EBA mailako estreinako partiduan elkarren aurka jokatzea egokitu zitzaien Zornotzari eta Tabirako Baquéri. Etxetik kanpora jokatzen zutenez eta Zornotzak hainbat fitxaketa egin dituenez, azken horiek ziren faborito, baina Durangoko talderak 78-85 irabazi zion.

Atsedenaldira parekatuta heldu ziren (40-41). Partidua amaitzeko minutu biren faltan, Zornotza hamar puntugatik irabazten zihoala heldu zen durangarren erreakzioa, Igarzak segidan hiruko bi sartu zituenean. Bihar Cafés Aitonaren kontra jokatuko dute Landako kiroldegian. ■ J.D.

## Durangarrek galdu egin zuten zestan

Zapatu eta domekan San Fausto Txapelketako beste jardunaldi bi jokatu ziren Ezkurdiko frontoian. Azkarate eta Iker durangarrek bietan jokatu zuten, lehenengoan irabaziz eta bigarrenean galduz. Bartzelonako taldeko Victor eta Txurrukari 30-25 irabazi zieten, Andoaingo Aizpurua anaien aurrean 30-18 amore eman zuten. Mikel eta Aldekoak, zapatuan, Noaingo taldea izan zuten aurkari, eta 30-18 menderatu zituzten Iturbide II.a eta Bailo nafarrek.

Datorren jardunaldia zapatu honetan izango da, egitarau honegaz: Markinak Mutrikuren kontra jokatuko du, eta Gernikak Berriatuaren aurka. ■ J.D.

## Abasolo ez da sartu hamar lehenengoetan

Joan zen asteburuan Urretxun korritutako lasterketagaz amaitu zen Euskaldun Torneoa. Cafés Baqué taldeko Borja Abasolok lehenengo hamarren artean sartzeko aukerak zeuzkan, baina lasterketa 30. amaitu eta azkenean sailkapenean hamabigarren geratu da.

23 urtez azpikoan ere parte hartu du, eta seigarren amaitu du abadiñarrak. Gainera, aurten 23 urtez azpiko Bizkaiko txapelketa irabazi du.

Euskaldun Torneoan laugarren geratu da Cafés Baqué taldeko Juan Sebastien Tamayo txirrindularia. ■ J.D.

# Elorrio lurralde ezezaguna konkistatzeko prest dago

Goren maila arrotza zaion arren, ez da kikildu Elorrio; liga garaipen bigaz hasi eta kanpamendua lurralde berrian egonkortu gura du



Asteburuan Mungiaren zelaia bisitatuko du Angel Diezek zuzendutako taldeak. Juanra de la Cruz

Urte bian beste hainbeste bider igotzea lortu ondoren, lurralde berri, ezezagun eta arriskutsuan aurkitzen da Elorrio. Arerioak arrotzak direnez, badakite asteburuetako guda bakoitza mundu berri bat izango dela, eta gerra irabazi edo mailari eutsi gura badiote, ekinean eta irmotasunean dagoela gakoa. Oran arte, Angel Diezen gudarosteak ederto barneratu ditu kontzeptu horiek eta, ustekabean, ligari garaipen bigaz ekin dio.

Ligako estreinako partidua hasi aurretxoan aldageletan zeudela, taldea "nahiko urduri" zegoela onartu du Diez entrenatzaileak: "Azken batean ez nik ez jokalariek ez ditugu goren mailako taldeak ezagutzen, eta partidu bakoitza mundu berri bat da guretzako". Zelanbait urduritasuna bideratzen asmatu, eta etxetik kanpora 2-3 menderatu zuten Ortuella. Joan zen astean, berriz, zaleen aurrean 2-0 irabazi zioten Galeari. Lehenengo zatian sartu zituzten gol biak eta bigarrenean abantailari eutsi egin zioten.

> A. Diez: "Ez dugu goren maila ezagutzen eta partidu bakoitza mundu berri bat da"

Liga hasi besterik egin ez denez, sailkapeneko bigarren postua, oraingoz, anekdota bat da. Elorriok mailari eustea du helburu nagusi. Hori lortzeko bide lasterra hartu dutela dirudi, baina liga luzea eta exigentea da. Dena dela, argi dago "lehenengo partidu biak irabazteak konfiantza eta indarra eman diola taldeari".

Beraz, ilusioz lepo bisitatuko dute bihar Mungia taldearen zelaia. Ezkutua besoratu, ezpata zorroztu eta goren mailara ez direla denborapasa etorri erakutsi guran irtengo dira berdegunera.

**Iazko taldea**

Elorriok, aldaketa gutxi batzuk gorabehera, iazko blokeari eutsi dio. Lau-bost jokalarik utzi dute taldea, eta horien tokia bigarren taldeko eta gazte mailako bina jokalarik eta beste fitxaketa bik bete dute. Hain zuzen ere, Berriztik Ander Eguren zentrala

> Berriztik Ander Eguren eta Elgoibartik Iban Munitis fitxatu ditu aurten Elorriok

etorri da eta Elgoibartik —Kulturalean ere ibili da— Iban Munitis. Hirugarren mailan eta ohorezko mailan jokatu duten jokalari bi horiek esperientzia emango diote Elorriori.

Biharko partidurako ia talde osoa prest izango du Diezek. 'Larra' hegaleko jokalariak arazo muskularrak dauzka eta bera da duda bakarra. ■ J.D.

## Adituarentxokoa



**Unai** Zamalloa
•Saskibaloi entrenatzailea

### ACB liga hastear dago

Ostegun honetan hasiko da ACB liga, derbi klasiko eta handi batekin: Asefa Estudiantes eta Real Madril, nor baino nor gehiago. Hasierako partidu hori, aurtengo liga zelakoa izango den jakiteko adibide nagusia izango da.

Goiko partean betikoak arituko dira: Caja Laboral Baskonia, Barcelona, Real Madrid, Power Electonics Valencia eta Unicaja Malaga izango dira faborito nagusiak.

Beste maila batean, gora egiteko moduko taldeekin, Sevillako Cajasol, DKV Joventut, Asefa Estudiantes, Gran Canaria 2014, Bizkaia Bilbao Basket eta Granada kokatu behar dira. Horien helburu nagusia Kopan sartzea eta beheko postuetatik urruti geratzea izango dira segurutik. Hortik aurrera, play-offetan sartzea eta Europarako txartela lortzea izango da talde hauen helburua.

Behean, jaitsiera postuak ekiditzeko, aurten ere ikaragarrizko borroka egongo da. Lagun Aro Gipuzkoa Basket, Fuenlabrada, Meridiano Alicante, Assignia Manresa, Blancos Rueda Valladolid, Menorca Basquet eta CAI Zaragoza egongo dira lehia horretan. Talde gogorrak, borrokalariak denak eta edonori irabazteko gai direnak, baina liga luzea denez zailtasunak izateko aukera gehien dituztenak dira.

Caja Laboral Baskonia berriro txapeldun ikustea, Bizkaia Bilbao Basket eta Lagun Aro Gipuzkoa Basket kopan eta Europan sartzea litzateke euskal saskibaloi zaleontzat amets perfektua. Ia lortzen dugun!

# Iker Etxebarria irabazle One Wall txapelketan

Buruz buru zein binaka garaitu zuen; 18 urtez azpikoan ederto ibili zen Bereinkua iurretarra

Iurretako Olaburu pilotalekuan Euskadiko One Wall txapelketa jokatu zuten joan zen zapatuan, eta Iker Etxebarria artearra izan zen txapeldun banaka. Finala Enrike Huizi usurbildarrari irabazi zion. Binaka, Erauzkin bikotekide zuela, iazko aurkari berak —Martin II.a eta Mikel Gonzalez berriztarra— menderatu zituen, iazko emaitza beragaz, gainera: tanto bakarragatik irabazi zuten.

Are interesgarriagoa izan zen 18 urtez azpikoen maila. Maila horretan ere arratiarrak geratu ziren txapeldun. Eki Ziarrustak banaka zein binaka txapela jantzi zuen. Binaka Jokin Etxebarria izan zuen bikotekide.

Hala ere, azpimarratu beharra dago Mikel Bereinkua iurretarraren lana 18 urtez azpikoan. Binaka zein banaka azpitxapeldun izan zen, eta maila bikainean jardun zuen. Maila ona erakutsi zuten Callejak eta Gorosabelek ere, beste hainbaten artean. ■ J.D.





Guztira, 48 pilotari lehiatu ziren Olaburu pilotalekuan.

# Liga hasierak saskibaloi eta areto futbolean

Tabirako Baquék eta Anbotopekok etxetik kanpora ekingo diote erregional mailari

Asteburu honetan eskualdeko hainbat taldek ligari ekingo diote saskibaloian eta areto futbolean. Saskibaloiari dagokionez, lehenengo erregionalean, Tabirako Baquék Loiola Indautxuren etxean jokatuko du, bihar arratsaldean. Anbotopeko ere etxetik kanpora ariko da, Baiki Portugaleteren kontra.

Emakumeetan ere liga hasiko du Tabirako Baquék erregional mailan. Estreinako lehia etxean dute Erandioren kontra. Julza-Zalduak, berriz, Balmasedaren aurka jokatuko du.

Areto-futboleko lehenengo erregionalean, berriz, Durangaldeko talde guztiek etxean ekingo diote ligari. Elorrioko Bk eta Mendibeltzek Bermeo eta Zamudio hartuko dituzte, hurrenez hurren. Abadiñoko Gaztetxiek eta Abadiñoko Lagunek Masusberri era Begoñazpiren kontra jokatuko dute Berrizko kiroldegian. ■ J.D.

> Elorrioko B, Mendibeltz eta Abadiñoko talde biek etxean jokatuko dute areto futbolean

# Oraindik porrotik jaso ez duen Kulturalak Santutxu hartuko du

Sestao Riverren etxean lortutako garaipen handiaren ondoren, Kulturala laugarren dago sailkapenean. Orain arte ez du partidurik galdu: hiru irabazi eta bi berdindu egin ditu



Bihar, 17:00etatik aurrera, Durangoko Kulturalak Santutxu jasoko du Tabiran. A. Dominguez

Aurreikuspenik onenak gainditu dituen liga hasiera egiten ari da Durangoko Kulturala. Bost jardunaldi joan direnean, oraindik ez dakite aldageletara burumakur joatea zer den, eta joan zen asteburuan mailaz igotzeko faborito nagusietakoa den Sestao River gainditu zuten Las Llanasen. Bihar, momentu gozoan jasoko dute Santutxuren bisita Tabiran.

> Kulturala golik gehien sartu duen taldea da, Sestaogaz batera: hamarna sartu dituzte

Dena dela, Santutxu ere ez dabil txantxetan liga hasiera honetan. Ligari porrot batekin ekin zioten —Sestaoren zelaian—, baina harrezkero maila oso onean dabiltza: hiru garaipen eta berdinketa bat. Hori bai, garaipen guztiak etxean lortu dituzte.

Durangoko Kulturalak konfiantzaz lepo egingo dio aurre norgehiagokari. Sestaon, galtzen hasi arren, markagailuari buelta emateko adorea izan zuten, nahiz eta aurkaria ez zen edonor. Kulturalak bere ohiko jokamoldeari eutsi zion, baloia mugitzen saiatu zen, eta partidu osoan bederatzi korner atera zituen (Sestaok hiru bakarrik). Lehenengo zatiaren hondarrean eta bigarrenean Iker Martinezek sartu zituen hiru puntuak eman zizkieten golak.

Kulturala orain arte hirugarren mailan golik gehien sartu duen taldea da, Sestaogaz batera: hamarna sartu dituzte. Defentsa lanean oraindik badute zer hobetu. Golik gehien jaso duten hirugarren taldea dira: sei gol. Hala ere, apurka-apurka alderdi hori ere hobetzen ari

> Santutxuk azken 12 puntuetatik 11 lortu ditu; ia denak etxean

> Biharko partidurako lesionatuta daude Unai Mugika eta Jon Conde

direla dio Axier Intxaurragak: "Defentsan gehiago estutu behar dugu, oraindik aukera gehiegi egiten dizkigute, baina, liga hasi denetik hona, defentsa sistemak hobera egin du, eta bide horri jarraitu behar diogu".

Biharko partidurako jokalari bi bakarrik daude lesionatuta: Jon Conde eta Unai Mugika. Gainerakoak Intxaurragaren agindueta ra egongo dira. ■ J.D.

# Holke eta Beorlegi irabazle Klasikoetan

Orain lau urte ere giputz biek irabazi zuten Durangon jokatutako Klasikoen Lasterketa

Eibar eskuderiako Roland Holke eta Fernando Beorlegik irabazi dute barikuan eta zapatuan jokatu zen X. Klasikoen Rallya. Durangotik abiatuta, hainbat tartetan lehiatu ondoren (650 bat kilometro), gipuzkoarrak izan ziren erregularrenak. Iñaki Barredo eta Diego González bigarren izan ziren, lau segundora. Hirugarren postua Aitor Villotta eta Asier Isasirentzat izan zen. Orain lau urte ere Holkek eta Beorlegik irabazi zuten Klasikoen Rallya.

Egun bietan Landako erakustazokan ikusgai egon ziren 70 auto klasikoak. ■ J.D.



J.F.

## Agenda

**FUTBOLA**
HIRUGARREN MAILA
**Durangoko Kulturala - Santutxu**
Zapatuan, 17:00etan, Tabiran
BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)
**Elorrio - Orduña**
Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

**ARETO FUTBOLA**
OHOREZKO B MAILA
**Elorrioko Buskantza - Jarrilleros**
Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian
EUSKAL LIGA
**Sasikoa B - Arabako EHU**
Zapatuan, 19:30ean, Landako kiroldegian
LEHENENGO ERREGIONALA
**Elorrioko B - Bermeo**
Zapatuan, 16:00etan, Elorrioko Udal kiroldegian
**Mendibeltz - Zamudio**
Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian
**Abadiñoko Gaztetxie - Mazusberri**
Zapatuan, 18:15ean, Berrizburu kiroldegian
**Abadiñoko Lagun - Masuzberri**
Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

**SASKIBALOIA**
EBA MAILA
**Tabirako Baqué - Cafés Aitona**
Zapatuan, 19:30ean, Landako kiroldegian
LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)
**Tabirako Baqué - Erandio**
Zapatuan, 16:30ean, Landako kiroldegian
BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)
**Julza-Zaldua - Balmaseda**
Zapatuan, 16:30ean, Zaldibarko kiroldegian

**PILOTA**
XXV. CAFES BAQUE TXAPELKETA
*Kadeteak*
**- Fullaondo / Ibarrondo**
**- González / Albizu**
*Gazteak*
**- Irusta / Bilbao**
**- Izurieta / Larunbe**
Urriaren 6an, 19:00etan, Atxondoko pilotalekuan
ZALDIBARKO OLAZAR PILOTA TXAPELKETA
*Lau t'erdian*
**- Uriona (Markina) / Mendoza (Errioxa)**
*Binaka*
**- Andreu-Telletxea / Alvarado-Kastillo**
Urriaren 7an, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik
clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria
odontologia orokorra eta espezialitateak
muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

# AMALURRA>

URKIOLA
Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



# Euskaldunon kontsumo-mailagaz hiru-lau planeta behar genituzke

**Hazkunde jasangarria ez dela existitzen diote Deshazkunde taldeko kideek, "gure planetak mugak dituelako"**

**Mugarik Gabe GKEak antolatutako ikus-entzunezko zikloa amaitzeko hitzaldian eman zituzten azalpenak atzo**

## "Gutxiago kontsumitu hobeto bizitzeko" hitzaldia eman du Bizkaiko Deshazkunde taldeak Durangoko Plateruenan asteon

Ekonomikoki herri bat hazten dabilela entzutea positibotzat jotzen da gaur egun, eta krisi garaiotan, zer esanik ez. Planetak mugak ditu, baina, eta ingurugiroaren ardura horretatik "hazkunde jasangarria" lako kontzeptuak jaio dira. Bizkaiko Deshazkunde taldeko kideek hazkunde jasangarririk ez dela existitzen azaldu dute Durangon eskainitako hitzaldian: "Ekonomikoki hazteak kontsumoa haztea esan gura du ezinbestez, eta ezin dugu ibili hazten hazteagatik, gure planetak mugak ditu eta".

### Iparra eta hegoa

Herri indigenetan ekoiztutako dokumentalen zikloa eskaini dute asteon Durangon, Platerueanean. Mugarik Gabe GKEak antolatutako zikloa deshazkundearen gaineko mahai-inguruagaz amaitu da. Iparraldeko herriek ezin dutela hazten jarraitu azaldu dute hitzaldian: "Ez badugu ekonomia eta kontsumoa moteltzen, Hegoaldeko herriek ezingo dute hazi bizi-maila duina izateko lain".

Euskal Herrian gaur egun daukagun kontsumo-maila planeta guztian emango balitz, 3 edo 4 planeta beharko genituzkeela azaldu du Floren Marcellesi Deshazkunde taldeko kideak: "Mugen gainetik bizi gara eta bizi-maila kontsumo-mailagaz nahasten dugu". Bizi-maila kontsumitzeko gaitasunean barik bestelako balioetan oinarritu beharko litzateke, Marcellesiren ustez: "Ikerketa soziologikoek sarri azaleratu dute BPG igotzeak ez duela zoriontasuna handitzen".

### Aldaketa erradikala

"Gizartea kontsumoan eta produkzioan oinarrituta dago, eta aldaketa gura badugu sistema guztia berpentsatu behar da". Deshazkunde taldeko kideek badakite aldarrikatzen dutena betetzea gaitza dela, baina apurka-apurka ekimen berriak sortu direla nabarmendu dute.

Kontsumo taldeak, adibidez, nekazariekin hartu-eman zuzena daukaten kontsumitzaileek osotutako taldeak dira. Nekazaritza ekologikoa egiten duten ekoizleek zirkuitua antolatzen dute familiei euren produktuak saltzeko. Trantsizio mugimendua ere deshazkundearen adibidea da. Hiri mailan, auzoan, eskolan... petrolioaren amaierara eta aldaketa klimatikora moldatzeko erantzun positiboak ematen hasi dira. ■ A.U.


BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO ABADIÑO
KALITATEA ETA PREZIO EGOKIA
EZ DIRA BETI ELKARREN ETSAI
AUKERATU EZAZU ORDAINTZEKO MODUA
ETA GUSTUKOEN DUZUN BEHERAPENA
www.bautistamuebles.com
Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)
BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

# anboto.iragarkilaburrak.com

**Clio familiarra salgai.** Clio Grand Tour berria. Dynamique 1.5 dci 85 zp. Gris zilarkara. 2 urte eta erdi. 30.000 km. Diesela. 12.000 euro. Aire egokitua, erreguladorea, limitadorea. Break. Airbagak. 5 ate. Bihurguneetarako argi gehigarriak. Aurreko kristal igogailu elektrikoak. Ixte sistema zentralizatua. Atzeko banketa 1/3-2/3. CD. Garantia: 2012-01-22. Urteko errebisioa pasatu berri. Telefonoa.: 609 93 90 95.

**Opel Corsa salgai.** Opel Corsa 1.4i, 232.200 km, ondo zaindua, ITVa azarorarte du, korrea 182.222 km-rekin aldatu zitzaion. 800euro. Telefonoa: 626 435 412

**Seat 600 l.** Oso egoera onean. ITVa pasatu berri. Telefonoa: 645 717 821

### FURGONETAK

#### SALDU

**California T4 salgai.** California T4 salgai. 2400 diesela. 146.000km. Egoera onean. Sukaldea, hozkailua eta abar dauzka. 4 pertsonarentzako oheak (behean eta goian). 13.700 euro. Telefonoa: 671 841 563. Jon.

### MOTORRAK

#### SALDU

**Kawasaki - Versys 650.** Egoera onean, beti garajean. 2007koa da. 12.400 kilometro, gorria. Kutxa opari. 4.500 euro. 690 07 15 72.

**Yamaha Jog Scooter bat salgai.** Yamaha Jog motorra salgai. 2.000 km. Iata pasatuta. Ezer aldatu barik, dena orijinala. Beti egon da garajean. stratokaster@gmail.com.

Telefonoa: 650 172 285

### BESTE IBILGAILUAK

#### SALDU

**MF760 hondeamakina mistoa salgai.** MF760 hondeamakina mistoa salgai. Telefonoa: 605 748 383.

## Aisia/kirola

### KIROLAK

#### GAINERAKOAK

**Futbitorako neska bila.** 2010-2011 denboraldirako, nesken futbito talde federatua mantentzeko neska bila gabiltza. Oraingoz, lau gara. Animatu zaitezte. Informazio gehiago: www. Kuru. Es

### ANIMALIAK

#### SALDU

**Astoa salgai.** Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipa. 656 772 994

**Kapoiak salgai.** Kapoiak saltzen ditut. Interesatuta egonez gero, deitu hurrengo telefono zenbakietara: 626 761 010 edo 686 810 203

**Txakur hezitzailea.** Txakur hezitzailea. Eusko jaurlaritzan erregistratuta. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditut. Noizean behin dobermann txakurkumeak. Tel.: 656 791 027

**5 txakurkume oparitzen dira.** Ama ardi-txakur eta mastin nahastea, eta aita alaska malamute. Ia 2 hilabete dituzte. Handitan tamaina ertain-handia izango dute. 3 ar eta 2 eme dira. Presa dugu kentzeko, ezin ditugu mantendu. Deitu: 671 815 750

**Huskyak oparitzen ditugu.** Urgentziazko harrera behar duten 11 husky oparitzen ditugu, sakrifikatu ez ditzaten. Hilabete eta erdi daukaten 11 husky siberiar dira. Interesatuta egonez gero edo interesatuta dagoen norbait ezagutuz gero.Telefonoa: 686 934 359 (minerva)

### MUSIKA/PELIKULAK/LIBURUAK

#### SALDU

**Bajua salgai.** 10 orduan bakarrik erabilitako bajua saltzen dut. Funda, anplifikadorea (20w), kablea eta hiru pua barne. 200 euro. jbpetgarjo@hotmail.com

#### GAINERAKOAK

**Gitarra eskola pribatuak durangon.** Gitarra eskola pribatuak durangon. Elektrikoa, akustikoa, rock-a, blues-a, jazz-a, funk-a, etb. Eskalak, akordeak, erritmoa, teknikak, inprobisazioa, irakurketa... 650 172 285

### OPORRAK/BIDAIAK

#### GAINERAKOAK

**Etorri Lodosara.** Nafarroako Ebroren erribera ezagutu nahi baduzu, etorri Lodosara eta egun batzuk pasatu gure landaetxean.677 834 047 - 948 693 618

## Familia/etxea

### ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK

#### SALDU

**Logela salgai.** Logela salgai, zuri eta wengue kolorekoa. Ohea: 135x190 zm. Gau mahaiak: 260 zm-ko luzera. Armairua: 240x158x60 zm. Komoda: 120x75x40 zm. Ispilua: 120x60 zm. 2007. Urtekoa. Oso ondo dago.

**Ohe artikulatua salgai.** Pertsona nagusientzako ohe artikulatua salgai. Urrutiko agintea du. Telefonoa: 649 96 92 98

### HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK

#### SALDU

**Paseo aulkia salgai.** Bebe confort markako paseorako aulkia salgai. Horrekin batera kotxearentzako homologatuta dagoen grupo 0, aulki bietako burbujak eta kapotak oparitzen dira. Prezioa: 100 euro. Telefonoa: 650 914 806

**Ume karroa salgai.** Ume karroa salgai: "bebe car multipla" markakoa. Urdina. Egoera onean. Maxicosia, kapazua eta aulkia osagarri guztiekin: euritakoa, plastikoak eta sehaskarentzako osagarriak ere bai. 400 euro. Telefonoa: 696 969 276

### EDERGINTZA/OSASUNA/ESTETIKA

#### SALDU

**Goi kosmetikako produktuak salgai.** Mary Kay edertasun kontsultora independenteak goi kosmetikako produktuak saltzen ditu. Produktuak erosi aurretik, proba itzazu zure automakillaje eta aurpegia zaintzeko dohaineko klaseekin. Seguru gustatu egingo zaizula. Deitu 678 836 050 telefonora.

# INMOBILIARIAK


ETXETXO G. INMOBILIARIA
Saibigain, 1(barrera F. J. de Zumarraga kalotik)
Tel.: 94 681 40 49 • DURANGO • ietxetxo@hotmail.com

## AUKERA

• 105 m2. 4 logela eta 2 komun. 2 terraza. Berogailua. Igogailua. 234.400€.

## ETXEBIZITZA SALGAI

• Landako: 2 logela, egongela eta sukaldea. Terraza. Ganbara. Garajea eta trastelekua. Eguzkitsua.
• Matiena: 100 m2. 4 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua.
• Tabira: 4 logela. 2 terraza. 222.300€.
• Mikeldi: 105 m2. 4 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara. 234.400€.
• Ezkurdi: 138 m2. 4 logela eta 2 komun. 2 Terraza.
• Madalenoste: 100 m2. 3 logela. Trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Erdi berria.
• San Ignazio: 90 m2. Terraza. Garajea eta ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatua.
• Antso Eztegiz: 2 logela. Berria. 198.000€.
• Astepe: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. Pisu altua. Ikuspegiekin.
• Zumar parkea ( Tabira ): Erdi berria. 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Trastelekua eta garajea.
• Durango: 2 logela. Berogailua. 156.300€.
• Ezkurdin: 70 m2. 1.go solairua.
• Tabira: 80 m2. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Guztiz jantzia. Aparkaleku pribatua. 200.000€.
• Mendizabal: 2 logela eta egongela. Ganbara eta garaje itxia. Eguzkitsua.
• Plateruen Plaza: 2 eta 3 logelako etxebizitza. 2 komun. Trastelekua eta garajea.
• ATXONDO: Txaleta. 4.000 m2-ko lursaila.
• ATXONDO: Landa – etxea. 100 m2-ko lorategia.
IURRETA
• Maspe: 3 logela. Berria. Igogailua.
• Dantzari: 3 logela eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. 192.000€.
• Bixente Kapanaga: 110 m2. 4 logela eta 2 komun. 2 terraza. Trastelekua eta garajea.
• Bidebarrietan: 3 logela. Igogailua. Terraza handia.
• Zubiaurre: 3 logela. 2 terraza. 180.000€.
ABADIÑO
• Solokoa: 90 m2. 3 logela, egongela handia eta sukaldea despentsarekin. Berogailua. 3 terraza.
• San Trokaz: Erdi berria. 2 logela. Garajea eta trastelekua. Terraza eta 160 m2-ko lorategia.
• Abadiño: Bifamiliarra. 300 m2. 290 m2-ko lorategia.
NEGOZIOAK
• Baserri jatetxea ( Iurreta ).
• Tabira: 50 m2. Alokairuan edo salgai.
• Taberna – jatetxea: 230 m2. Funtzionamenduan. Alokairuan edo salgai.
BERRIZ
• Legaño: 3 logela. Balkoia. Eguzkitsua.
• Bernardo Gabiola: 70 m2. 3 logela. 171.000€.
GARAJEAK SALAGAI
• Iurreta: Askondo. Garaje itxia salgai.
• Ibaizabal: Garaje itxia salgai.
• Antso Eztegiz: 24.800€.
• Erretentxu: Garaje itxia. 18.000€.



Amboto
San Agustinalde, 4 - 1 Ezk.DURANGO
TF.: 94 681 35 62 email: iamboto@euskalnet.net

## ETXEBIZITZA SALGAI

### BERRIZ

• Logela, sukalde "amerikarra", egongela eta komuna. Berria estreinatzeko. 96.000 €.

### DURANGO

• Erdialdea: AZKENEKO 2 APARTAMENTUAK. Logela bat edo bikoak, sukalde jantzia eta horma-armairuekin. 150.000€-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
• Apartamento berriak eraikitzen.700€ hilero.
*Herriko Gudarien Plaza.3 logelatako etxe zoragarria, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin,egongela balkoiarekin, ganbara eta garajea
• Erdialdean. 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatzeko.
• Askatasun Etorbidea: Eraiki berriak. 2, 3, 4 eta logela bakarrekoak.
• Zeharkale: Atikoa. Guztiz berriztatua. 2 logela, sukaldea, egongela-jantokia eta komuna.
• Alluitz: 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin, egongela eta terraza. Garaje itxia. Estreinatzeko. Etxe osoak kanpora ematen du.
*San Inazio.3 logela,2 komun,sukaldea,egongela balkoiarekin, garaje aeta trastelekua, igerileku komunitarioa,etxe osoak kanpora ematen du.Prezio interesgarria.
• Tabira: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
• Murueta Torre: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara, garajea eta trastelekua. Prezio interesgarria.
• Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
• Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
• Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.

### ATXONDO

• 2 logela, komuna, bainugela, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du.

### IURRETA

• 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

## TXALETAK SALGAI

### URRUTXUA

• Baserria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.



FU AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Telf. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

## ETXEBIZITZA BERRIAK

• Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen. Salgai.
• Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin.
• Atxondo: Adosatua lursailarekin.
• Erretentxu: Adosatuak eraikitzen. Salgai.
• Otxandion: Adosatuak. Eraikuntza berriak.

## ETXEBIZITZA SALGAI

• Komentu kalea: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta komuna. Ganbara.
• Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
• Montebideo: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara. 150 m2.
• Murueta Torre: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
• Plateruen Plaza: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
• San Ignazio Auzunea: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 1/2 komun. Balkoia. Garajea aukeran eta trastelekua.
• San Fausto: Halla, sukalde-jantokia, 2 logela eta komuna.
• Sasikoa: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garaje itxia.
• Txibitena: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia.
• Untzillaitz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Erdi jantzia.
• Zabale: Halla, sukaldea eskegitokiarekin, egongela – jangela, 3 logela eta 2 komun. Garajea.
• Abadiño: Halla, egongela-jangela, sukaldea jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 garaje. Jantzia.
• Abadiño-Matiena: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Ganbara.
• Abadiño: 3 solairutako etxebizitza berriztatzeko.
• Abadiño- Muntsaratz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Igogailua. Oso egoera onean dagoen etxebizitza. Eguzkitsua.
• Abadiño-Muntsaratz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara. Berria oso egoera onean.
• Bedia: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Berrikuntzekin.
• Berriz: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trastelekua.
• Berriz: Duplexa. Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Erdi jantzia. Garaje itxia eta Trastelekua.
• Berriz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara. Eguzkitsua eta etxe osoak kanpora ematen du.
• Elorrio: Halla, sukaldea, 2/3 logela, egongela eta komuna. Balkoia. Trastelekua eta garajea.



ISD A.E.P.I. 216
Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com
www.inmoduranguesado.com

## ETXEBIZITZA SALGAI

• Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta ganbararekin 200.000€+ BEZ
- 2 logela garajea eta ganbararekin 233.000€+ BEZ
- 3 logela garajea eta ganbararekin 350.000€+ BEZ
• Pagasarri kalea: Azkeneko etxebizitzak salgai. Eraiki berriak. 2 eta 3 logela. Garaje itxia.
• Abadiño: 2 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. 120 m2.
• Zaldibar: Aukera. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berogailua. Balkoia. Garajea.
• Berriz eta Zaldibar: Etxebizitzak salgai. Deitu gaitzazu eta konpromiso barik erakutsiko dizkizugu!
• Abadiño, Muntsaratz eta Elorrio: Etxebizitzak salgai. 2 eta 3 logela.
• Zaldibar: Lursaila salgai eraikitzeko aukerarekin.
• Durangaldea: Baserriak,txaletak,pabilioiak eta garajeak hainbat zonaldetan, salgai edo alokairuan.
• Askatasun Etorbidea: 90 m2. Ganbara handia eta garajea.
• Arkotza: 4 logela, egongela, sukalde jantzia, komuna eta bainugela. Balkoia eta ganbara.
• Andra Mari: 30 m2-ko terraza. 2 logela. Berrriztatua.
• Mendizabal: 63 m2. 2 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara.
• Fray Juan de Zumarraga: 75 m2. Duplexa. 2 logela. Garajea eta trastelekua.
• Fray Juan de Zumarraga: 57 m2. Erdi berria. Logela bakarra. Balkoia.
• Alluitz – Fray Juan de Zumarraga: 50 m2. Erdi berria. Logela bakarra.
• Txibitena - Landako: Erdi berria. Logela bakarra. Ganbaran beste logela bat. Garajea.
• Landako: 105 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea.
• Zumalakarregi – Ezkurdi: 208 m2. 5 logela. Etxe osoa berriztatu behar da.
• Zumalakarregi - Ezkurdi: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
• Erdialdean: 90 m2-ko etxebizitza estreinatzeko. 80 m2-ko terraza.
• Ezkurdi: 100 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara.
• Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
• Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona. Garajea.
• Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
• Juan de Itziar: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.
• Askatasun Etorbidea: 75 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
• Herriko Gudarien kalea: 105 m2. 3 logela. Garaje itxia. Balkoi handia.
• Frantzisko Ibarra: 95 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.

# AGENDA >

> ANBOTOko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urriaren 1ean Elorrioko Arriolan, eta Urriaren 3an Durangoko San Agustinen

## TRES

Euren ikasketak amaitu zituztenetik (azken 30 urteetan) elkar ikusi barik egon diren Rocio, Angela eta Carlota bizitzak berriro zelan elkartzen dituen kontatzen du Mutis Producciones taldearen antzezlanak. Bizipen oso desberdinen ondoren, egoera berean daude orain: "berrogeita hamar urte betetzear eta bakar-bakarrik".

## ANTZERKIA

### DURANGO

›› Urriaren 3an, 19:00ean Mutis Producciones taldearen *Tres,* San Agustin kulturgunean.

›› Urriaren 7an, Berrizko Txintxaun Kolektiboaren *Cuadros de amor y humor al fresco* antzezlana, Plateruenean, 20:00etan.

›› Urriaren 11n, Mag Lari magoaren ***Sonrisas y magia*** ikuskizuna, 20:00etan San Agustinen.

### ELORRIO

›› Urriaren 1ean, 22:30ean, Mutis Producciones taldearen *Tres,* Arriola antzokian.

### ERMUA

›› Urriaren 8an, Tangorditos taldearen *Más gorditos que nunca*, 22:15ean Lobiano kulturgunean.

## BERBALDIA

### DURANGO

›› Urriaren 1ean, **Juan Carlos Alonso psikologoak** aitei eta amei zuzenduta, **teknologiak seme-alabengan duen eragina**ren gaineko berbaldia eskainiko du 19:00etan Udal liburutegian .

›› Urriaren 6an, Saroa Bikandik **Amatasunari, aitatasunari eta literaturari buruz** eskainiko dituen hiru tertulietan lehenengoa (haurdunaldiari eta erditzeari buruzkoa), Udal Liburutegian, 19:00etan.

## ERAKUSKETA

### ABADIÑO

›› Urriaren 8ra arte, Geredixa mikologia taldeak antolaturiko **V. Argazki Lehiaketa**ra aurkezturiko lanak, Errota kultur etxean.

### BERRIZ

›› Irailaren 17tik urriaren 3ra arte, **argazki erakusketa** Kultur Etxeko sarreran. Martitzenetik barikura, 18:30etik 20:30era.

### DURANGO

›› Irailaren 10etik urriaren 20ra **Begoña Urresti** margolari iurretarraren koadroak daude Durangoko Zeharkaleko 9. zenbakian dagoen Artleku aretoan ikusgai.

›› Urriaren 3tik 13ra, ***Durango Uria*** margo lehiaketara aurkezturiko lanen erakusketa, Ezkurdiko udal erakusketa aretoan.

### ERMUA

›› Urriaren 4tik 31ra, ***CNT: Anarkosindikalismoaren 100 urte*** erakusketa Lobiano kulturgunean.

## JAIAK

### Iurretako San Migel jaiak

›› Urriaren 1ean, (**Migeltxu Kajoi eguna**) 18:00etan, Ilargian **umeentzako antzezlana**, Askondon. 19:00etan San Migel jaietako VIII. **Pilota Txapelketako finalak**. 19:30ean Elektrotxarangak giroturiko **prozesioa** Montoitik. 21:00etan **frontenis maratoia**.

›› Urriaren 2an, (**Mozorro Eguna**: telesailak gaiagaz) 12:30ean, **poteoa eta kalejira** Montoitik plazara. 15:00etan **herri-bazkaria** plazan. 17:00etan Osabi taldeagaz **erromeria**. 17:00etan XI. **Bizikleta festa**ren irteera San Migel plazan. 20:30ean, Les diables de Sant's **correfoc**-a. 22:00etan **bertsolariak**: Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Miren Amuriza. 24:00etan Laiotz taldeagaz **erromeria**.

›› Urriaren 3an, (**Errosario Eguna**) 10:00etan Pablo Berasaluze VIII. **Eskupilota Txapelketaren finalak**. 10:00etatik 15:00etara **XII. Nekazaritza eta Artisautza Azoka** Andaparape. 10:30ean **Dantzari eta Agintarien kalejira** Montoitik plazara. 11:00etan **meza nagusia**, eta ondoren **Dantzari Dantza**. 13:00etan **Errioxar erako pataten txapelketa**. 14:30ean lapikoen aurkezpena eta **sari-banaketa**. 16:30ean **pilota partiduak: Berasaluze VIII.a eta Apraiz, Bengoetxea VI.aren eta Belokiren kontra**. 18:30ean **Dantza saioa**. 20:30ean **Herri-afaria**, Arantza eta Patxoren musikak giroturik. 22:00etan jaiei amaiera ohiturazko **bertsoak** kantatuz. **Erromeriak** gauerdira arte.

### Okangoko jaiak (Berriz)

›› Urriaren 2an, 16:30ean, **umeen jolasak**. 17:30ean **txirrindulari lasterketa herrikoia**. 19:00etan **odoloste-jana**. 19:30ean **Etxe** musikariaren kontzertua.

›› Urriaren 3an, 07:30ean Berrizko baselizetatik **ibilaldia** Martin Arriaga 'Atxa'-ren omenez (Irteera: Mikel Deunaren baseliza). 10:00etan **kalejira** auzoan zehar. 12:00etan auzoko hildakoen omenezko **meza**. Iremiñe taldearen **dantza emanaldia**. Miren eta Xabier Amuriza **bertsolariak**, eta auzoko **trikitilariak** ondoren.

## MUSIKA

### DURANGO

›› Urriak 1ean, 22:00etan, **Eric Fuentes** eta **The Unfinished Sympathy**, Plateruenean.

›› Urriaren 2an, Laugarren **Oktoberfest** jaialdia Landako erakustazokan: Cock Sparrer, Stiff Little Fingers, Cobra, Segismundo toxicomano, Des-kontrol...

›› Urriaren 8an, XIII. Gau elektronikoa 22:00etan, Plateruenean.

## IKASTAROAK

### BERRIZ

›› Urriaren 15era arteko epea dago Udalak eta Zabaltzen-Sartu elkarteak, **23 eta 45 urte arteko emakumeei zuzenduta** antolatu duten **lanbide-heziketarako ikastaroan** izena emateko. Azarotik otsailera artekoa izango da ikastaroa. Udaletxean bertan eman daiteke izena.

### DURANGO

›› Urriaren 8ra arteko epea dago Durangoko Amankomunazgoak antolatzen duen ***Mermeladak eta kontserbak*** tailerrean izena emateko. 94-6200546 edo 94-6201860 telefono zenbakietan eman daiteke izena.

›› Urriaren 2ra arteko epea dago Durangoko Amankomunazgoak antolatzen duen ***Paleoantropologia: gizakiaren jatorri fisikoa*** eta ***El lenguaje*** ikastaroan izena emateko. 94-6200546 edo 94-6201860 telefono zenbakietan eman daiteke izena.

### IURRETA

›› Urrian eta azaroan egingo dituzten gazteei zuzenduriko ***Making* komiki digital eta ikusentzunezkoen ikastaroa** biblioteka@iurreta.net edo liburutegia@durango-udala.net edo 946812726 edo 946030041 telefonoetara deituta eman daiteke izena.

## BESTEAK

### DURANGO

›› Urriaren 8ra arte eman daiteke izena, urrian eta azaroan Durangoko Liburutegian izango den ***Telesailen urrezko aroa*** izeneko **telesail forum**ean. **Harkaitz Cano** idazleak gidatuko du, telesail enblematikoen atal esanguratsuak proiektatu eta ondoren eztabaida hartuko duten saioak. **Seinfield, Extras/The office, Six feet under, The Soprano's eta The Wire** telesailak landuko dituzte, guztiak jatorrizko bertsioan eta gaztelerazko azpitituluekin botako dituzte.

### ERMUA

›› Urriaren 2an umeentzako **ipuin-kontaketa** saioa izango da arratsaldeko 17:30ean Udal Liburutegian.

## ZINEKLUBA

### ABADIÑO

›› Urriaren 1ean ***Vicky bikingoa*** umeentzako filmaren emanaldia, 18:30ean, 'Ikusi Makusi' ekimenaren barruan, Errota kultur etxean.

›› Urriaren 8an ***Polleke*** umeentzako filmaren emanaldia ,18:30ean, 'Ikusi Makusi' ekimenaren barruan, Errota kultur etxean.

## ZINEMA

### DURANGO

Zugaza

**Híncame el diente**
*Zuzendaria:*
*Jason Friedberg, Aaron Seltzer*
barikua 1: 19:00/22:00
zapatua 2: 19:30 eta 22:30
domeka 3: 19:30 eta 22:30
astelehena 4: 19:00 eta 22:00
martitzena 5 (ikuslearen eguna): 20:00

Umeendako zinema

**Como perros y gatos 2**
*Zuzendaria:*
*Brad Peyton*
zapatua 2: 17:00
domeka 3: 17:00

Zinekluba

**Baaria**
*Zuzendaria: Giuseppe Tornatore*
eguena 7: 20:30

### ELORRIO

Arriola

**Lope**
*Zuzendaria: Andrucha Waddington*
zapatua 2: 22:30
domeka 3: 20:00
astelehena 4: 20:00

### ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

**Origen**
*Zuzendaria: Christopher Nolan*
zapatua 2: 22:00
domeka 3: 20:00
astelehena: 20:00

Umeendako zinema

**Los niños de Timpelbach**
*Zuzendaria: Nicolas Bary*
domeka 3: 17:00

Zinekluba

**London River**
*Zuzendaria: Rachid Bouchareb*
martitzena 5: 20:00

urriko agenda

**Urriak 1-2-3** • San Migel jaiak
Aitte San Migel Jai Batzordea. Egitarau zabala. Kontsultatu agendan

**Urriak 2-3-9-10-12** • Txirrindulari elkartea
09:30 Ibilbide ezberdinak (76-95km)

**Urriak 4-15** • Herri Biblioteka
4an, Gizarte Ongizatea. 18:15 Munduko emakumeen literatur tailerraren hasiera (hamabostero, astelehenetan)
15ean, Umeentzako ipuin kontalariak. 17:00 (0-2 urte) / 17:30 (3-4 urte)

**Urriak 4-14** • Anderebide Emakumeen Elkartea
4an, 18:30 "Zoru pelbikoaren indartzea" kurtsoaren hasiera"
14an, 18:30 Hitzaldia "Vivimos en comunidad", Kultur Etxean.

**Oharrak**
**DIRULAGUNTZAK:**
Igerilekuetako abonuetako, Euskarazko, UEU, Musika eta igerilekuetako ikastaroentzako dirulaguntzak eskatzeko epea: urriaren 4tik abenduaren 3ra arte
Informazio gehiago: 94 620 03 42

IURRETAKO UDALA

anboto komunikabideak
Egoitza: Bixente Kapanaga kalea, 9 48215-Iurreta (Bizkaia) Tel.: 94 681 65 58 Erredakzioa: 94 623 25 23
Publizitatea: 94 621 79 02 publi@anboto.org Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 9.200 ale


AKUILUAN ■ Amaia Ugalde

# “Gazta gauza bizia da; ona egiteko garbitasuna asko zaindu behar da”

Joan den domekan, Artzain Egunean, Bizkaiko gaztarik onenaren saria jaso zuen Txirri durangarraren gaztak

Kalean jaiotakoa bada ere, betidanik gustatu zaio baserri mundua Jose Mari Iturralde “Txirri”-ri. Duela sei urte hasi zen gaztagintzan, apustu bat zela-eta. Horretan denbora gutxi badarama ere hainbat sari irabazi ditu; munduko gaztarik onena tartean, duela urte bi. Joan zen domekan, Abadiñon Bizkaiko gazta onenaren saria jaso zuen. Ardiak, txakurrak –24 dauzka– eta txerriak ditu Durango eta Mendiola artean. Horixe du hobby.

***Kaletarra izanda, zelan hasi zinen gaztak egiten?***
Duela sei bat urte, lehengusuagaz apustua egin nuen ea ehun gazta egingo nituen, eta berrehun ere egin nituen. Urkiolako Jon Bizkarrak irakatsi zidan, eta gero ikastaro batzuk ere hartuta nago. Besteek egiten dutena ikusi eta gazta keztatzeko aparailu bat daukat, neuk asmatutakoa. Aprobak egiten hasi nintzen, kea motor bategaz botatzeko sistema bat zelan ipini, eta hantxe daukat.

***Hasi eta gutxira munduko gazta onenaren saria irabazi zenuen, eta orain Bizkaikoa. Non dago sekretua?***
Ezin da jakin zelan irtengo zaizun. Beti egiten duzu berdin, eta beti desberdin irtetzen da. Nik uste dut garbitasuna dela kontua. Azken finean, denok jarraitzen dugu prozesu antzekoa. Fermentaziorako gradu batzuk, mamitzeko gradu batzuk... batzuk minutu pare bat gehiago edukiko dute, beste batzuk hiru... Hor garrantzitsuena garbitasuna da. Gazta gauza bizia da, ez da torloju baten modukoa. Ondo zaindu behar da, kontuz ez bazabiltza, arazoak eduki ahal dituzu-eta.



***Arazoren bat izan duzu?***
Lehenengo urtean akaroak eduki zituen gaztak. Mikroskopikoak dira horiek, eta konturatu orduko gazta guztia txarra irten zitzaidan. Orain denboraldi guztien amaieran desinfektatu egiten dut. Akatsetatik ikasten da.

***Gazta asko egiten duzu?***
Asko ez. Hau zaletasuna da niretzat. Aurten gehixeago ekoiztuko dugu. 10.000 litro gehiago iaz baino. Horregaz, 4.000 kilo pasatu gazta egiteko asmoa daukat. Baina kostatu egiten da saltzea. Azoketan asko igarri da salmentak bajatu direla. Sariren bat irabazi gero, zer edo zertxo, baina...

***Sarien laguntza igarri duzu, orduan?***
Bai. Kartela ipini eta propaganda egiten dugu eta, beno, behintzat, beste gaztetatik bereizteko bai, balio digu.

Azoketan asko igarri dugu salmenta bajatu dela. Lehenago batek 80 kilo saltzen bazituen, orain 30 saltzen ditu.

***Asko ibiltzen zara azokaz azoka?***
Zer edo zer bai. Iaz ez nintzen asko ibili, dena saldu nuelako. Baina, beno, datozen asteburuetan Iurretan, Sanfaustoetan... ibiliko naiz. Nire esneagaz nik egiten dut gazta, baina badaude beste batzuk enpresei saltzen dietenak, eta badirudi datorren urtean ez dutela erosiko; ez dakit zer egingo duten gazta stock handia daukate-eta.

***Zuzeneko salmentagaz hobeto?***
Zuzeneko salmentan eta harategien bidez saltzen dut ondo. Hemen Durangaldean, Abadiñoko bat eta ni bakarrik gaude, eta zortea daukagu, konpetentzia asko ez daukagulako. Araban, adibidez, herri txikienak ere bi gaztategi ditu! Hor abantaila daukagu hemen, baina gazteek gaitz daukate zerotik saltzen hastea. Inbertsio handia egin behar da gaztategia ipintzeko, eta gero ez da erraza saltzea.

***Artzain-txakurren txapelketetan ere ibilitakoa zara.***
Iaz arte bai. Parte hartzen eta Abadiñon antolatzen ibilita nago. Orain ez daukat astirik. Egunero entrenatu behar da. Lehen baeukan txakur gazte bat, eta harekin ondo, baina orain nagusiak dauzkat, eta gazteak, berriz, entrenatu barik.

## Jose Mari Iturralde “Txirri”•

Durangarra

Gaztak egiten ditu, zaletasun moduan

LAUHORTZA



Joxe Garaizabal
**Irakaslea**

## Itsuak ezin ikusi

*Itsuak ezin ikusi, mutuak berbetan baleki, zoro danak buru gutxi...*

Herenegun bete ziren 35 urte Francok bost gazte fusilatu zituela, eta 70 urte inguru Gernika bonbakatu ebala.

Joan den zapatuan Gernikan bertan hogeita zortzi talde eragilek Bake bidean aterabide demokratikoen akordioa sinatu eben.

ETAk duela hile bat emon eban su-etenaren barri. Eta joan den domekan berretsi eban Gara egunkariak egindako elkarrizketan su-eten iraunkor eta egiaztagarria emoteko prest dagoela.

Oraindino batzuentzat ez dago ezelako aldaketarik; herriari begiak tapatu gura deutsiez, ez daian errealitatea ikusi.

*Gauza txarra da galtzea, historia haiek ahaztea, hemengo jende gaztea, egon daiten ikasia, zelan dantzatu atzea.*

Demokrata itsuek ez ei dabe aldaketarik ikusten. Izan be, ez dago ikusi gura ez dauena baino itsuagorik.

Eurentzat Francok egindakoa behar-beharrezkoa zen herria errusiar gorri judu-masonikoen atzaparretatik libratzeko.

Azken aldian, ostera, dena da ETA: Egin, Jarrai, Euskaldunon egunkaria, Segi, Udalbiltza, eta bart gauean Askapena be bai. Laster Athletic bera, Baskonia, Osasuna, zu zeu, ni neu, denok.

Behin eta betiko batu gaitezen denok akordioaren alde.

*Aukera denak ez dira onak, diferentziak baditu, arrazoiari aditu, alferkeriai nausitu, bazter zikinak garbitu.*

(Letra etzanaz idatzita daudenak, Xabier Leteri hartutako bertso zatiak dira)

